# TXAKURRAK

## TXAKURREN ARRAZA GUZTIAK



A.D.E.V.E.

# TXAKURRAK

## TXAKURREN ARRAZA GUZTIAK

IRAUNGITZEKO ZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK
DEFENDATZEKO ELKARTEA

*Egilea:* **Fernando Pedro Pérez**



**Egilea:** Fernando Pedro Pérez
**Argitaratzailea:** ADEVE
**Lehen argitaraldia:** 2022ko ekaina
**ISBN:** 978-84-92401-31-4.
**Legezko gordailua:** BI-987-22.

# CANICHEA

Nahiz eta pertsona askok animalia apaintzekoa eta komiko samarra dela pentsatu, adimentsuagoa, mantsoagoa eta sinpatikoagoa bizi den takurretariko bat da, Canichea.
Ideia oker hau, bere izaera jostalariagatik edo ile mozteko itxuragatik -batzuetan bitxia- datorkigu.
Hasieran ehiztaria izan zen txakur honek, ezaugarri psikikoak, aparteko erreflexuak eta trebetasun ona ditu. Egia esan, talento apartekoa da, izan ere, trebetasun guztiak: bai artistikoak bai erabilgarriak, baita komikoak ere ikasteko gai da. Hau dela kausa, zirkuetan txakur jakintsua bezala lan egiten zuen emanaldirik harrigarrienak egiteko.
Bere usainmen zorrotza dela medio, Europan, Frantzian eta Inglaterran hain zuzen ere boilur-txakurtzat erabiltzen da. Honi gaineratu behar diogu itsuaurreko-txakur ona dela eta dotoretasun-lehiaketetan izugarrizko lehiakidea dela.
Konpainia animalia bezala, izaera atsegina du, jolastea asko gustatzen zaio eta beste txakurrekin eta umeekin oso otzana da.



### Arraza motak

Canichearen ilajea kiribilez, dentso eta bilotsua da, bere ehundura eta luzera uniformea da. Bere kolorea zuria, beltza edo gris-errautsa da. Animalia honi aukeraketa genetiko bat egin zioten bere jatorrizko tamaina pixkanaka-pixkanaka murrizteko. Horrela gaur egun, mota desberdin batzuk ikus ditzakegu: Caniche handiak edo Royal-ak: 45cm-tik 55 cm-ra bitartean neurtzen du; erdipurdikoak : 35 cm-tik 45 cm-ra bitartean neurtzen du, eta nanoa 35 cm-ra arte ailega daitekeela. Halaber, ezagutzen da ere, beste mota bat: Toy Canichea, honek, nanismoaren ezaugarriak ditu, eta 20 cm-tik 30 cm-ra bitarteko tamaina du.
Bere ilajearen izaeraren arabera bi mota daude: ile kizkurra duena -oso arrunta- eta ilea lokarri-itxurakoa duena, normalean Royal-a izan ohi da. Dena den, aditu askok esaten dute, desberdintasuna ileari ematen dioten tratamenduan datzala, orduan Caniche baten ilea denbora zehaztugabez hazteari uzten badiogu, eskuilatu eta moztu gabe, pixkanaka-pixkanaka nahasten doa, kiribil luzeak eraz-ten. Orduan Caniche kizkurra izateagatik, Caniche lokarritsua izatera pasa ohi da. Lehenengoak bigarrenak baino ugariagoak dira, izan ere estetikoki, ilea lokarritsua mantentzea oso zaila da, eta gaine-



ra denbora gutxi barru lokatzaren eta zikinkeriaren gordetegi bihurtzen da ilajea.

### Bainua eta elikadura

Canichearen bainua ohituratzat hartu behar dugu, nahiz bere higienea mantentzeko nahiz ilea mozteko. Kumeak bost hilabete baino gutxiago badauzkate inoiz ez dute bainurik hartu behar. Honekin arazo asko saihestu ahal izango ditugu, katarroaren konplikazioak, eta lehortze akastunetatik etortzen diren arazoak hain zuzen ere.
Txakurra bainatzeko, jan ondoren bi ordu eman behar dute digestioa ez mozteko, dena den, uretan sartu baino lehen, leunki atzeko hankak, burua eta bizkarra zizprinditu behar dizkiogu. Bere ilea oso zikina dagoenean, derrigorrez xanpu detergente bat erabiltzea beharrezkoa izango da. Orduan txakurrentzako xanpu berezi bat erabiliko dugu, izan ere, gureak, alergiak, ilearen erorketa eta negala sor diezazkioke.
Belarriak tapoi baten bidez babestu behar ditugu. Eta bainua bukatu bezain laster, lehorgailu elektriko baten bidez, ilajea, lehortu behar diogu.
Caniche askok, sudurraren albo bietan pare bi ildo aurkezten dituzte, hemen-txe,larruan eta ilean negar-jario bat agertu ohi da, honek esan nahi du, begiko-





konjuntiban infekzio txikiak dagoela. Hau saihesteko, ur epelez garbituko dizkiogu, baina kasu larrioagoa bada haur-kolirio ematea gomendagarria izango da. Halaber, aldizka, entzumen-pabilioiaren ileak ur epelez eta belaki txiki baten bidez garbituko dizkiogu.
Elikadurari dagokionez esan dezakegu, oso garrantzitsua dela gozokiak ez ematea, izan ere, honek pankreasa gehiegi lan eragin ohi du. 7kg-tik10 kg-ra bitartean pisatzen duen Caniche baterako dieta orekatuak, 350 gr haragi, zereal, hezuririn, eta animali-koipe puska bat osatu behar ditu. Osagarri bezala, kaltzio-tableta ematea oso garrantzitsua da, baita fruita freskoa ere. Esnea txakurrentzat izan behar da eta gainera esne-hautsa. Horrela intolerantziazko arazoak ekidingo ditugu, hau da, behi-esneak eta txa-

# CANICHEA

kur-esneak ez dituzte garraztasun berberarik ez da materia koipetsurik ere.

### Luxozko ikurra



Karlintxakurtzat, eta Frantziako nazio-txakurtzat hartuta izan da. Bere izena, ahateak ehiztatzeko trebetasunatik datorkio. Hau dela kausa, frantziarrek “chien a canard” esaten diote (ahatearen txakurra). Baina bere benetako jatorria ez dago Frantzian, bere arbasoak aurkeratzeko aintzinean begiratu behar dugu.

Ipar Afrikako Tribu nomadek eta berbereek ehiza eta artzaintza egiteko, txakur bilotsua, erdipurdiko tamainez, belarri eroriekin eta buztana luzearekin erabili izan ohi zuten -Barbet- izendakoa, artzain-txakurren eta ehiza-txakurren arbasoa. Ipar Afrikako txakur hau Iberiar Penintsulara ailegatu zenean, menperatze musulmana zegoenean, Portugaleko arrantzaleen ur-txakurrekin gurutzatze batzuk jasan zituen. Gero VIII . mendearen inguruan, animalia hauek, Frantziaraino ailegatu ziren, eta Loira, Rodano eta Akitania haranetan ospe handia lotu zuten, oinordetza nolakotasunagatik, alde batetik aparteko ehiztariak ziren eta beste aldetik igerilari onak ziren. Txakur honi ile luze eta kizkurra mozten hasi zioten, bere mugimenduak, uretan, errazteko. Herriko ohitura honek, hain zuzen ere, aristokraziaren aretoetako ate guztiak irekitzen zituen.

XVII.mendetatik aurrera, Canichea luxozko eta fintasunezko ikur bihurtu zen. Goiko txakur-ileapandegietako aretoak agertu ziren, txakur hauetako edertasuna areagotzeko, -kide bereiztezinak damarik dotoreenak-. Canichearen ikusmen berri honen ondorioz, hazle batzuek Canichearen tamaina gutxitu nahi izan zuten. Luis XVII-ren gortean, Ehiza-Canichearen lekuan Nano-Canichea geratu zen,izan ere, damek nahiago zuten.





Europan konpainia-txakurra bezala agertu izan zen, oso herrikoia gainera, eta esan daiteke bere lehiakide bakarra Dalmaziarra zela.

# SETTER IRLANDARRA

Setter Irlandarra, ehiza egiteko txakur aproposetariko bat da, nahiz eta bere izugarrizko edertasuna eta bere izaera mantsoa eta bakezalea izan, konpainia-animalia aparteko bihurtu da.
Arraza honen aukeraketa, Irlandan hasi zen, Europako Spaniel txakur handietatik etorri zen. Gaur egun gehien arreta deitzen dena, bere ile luzea eta zetatsua da, kaoba-urre-kolorekoa, disdiratsua eta zeharo leuna, kizkurik edo uhindurik gabe. Bere arbasoek ordea, ez zuten kolore hau, haiek gorri eta zuriak izan ziren, gainera zuria gorrixkaren menpean zegoen. Txakur hauek handiak eta astunak ziren, izugarrizko poterea eta sendotasuna zituzten, ehiztariei asko gustatzen zitzaizkien.
Inposizio estetikagatik, pasa zen mendearen erdian Ingalaterrako hazleek txakurraren itxura estilizatu eta bere mantu gorriska aukeratu zituzten. Inork ez daki nola lortu zuten, nahiz eta Ingalaterrako Setterrekiko edo Pointerrekiko gurutzatzeagatik izan. Hain ederrak izan ziren aleak ezen hazleek aukeraketa-erabilgarria kontu ez baitzuten egin, eta lanerako frogen ordez edertasun-lehiaketarako erabili ohi zituzten. Dena den goiz zuzendu egin zuten, eta berriro aukeraketa izaeragatik egin zuten, txakur honen nolakotasun ehiztariak ez galtzeko.





Setter Irlandar arrek 57 cm-tik 65 cm-ra bitarteko altuera neurtzen dute, emeek ordea,55 cm-tik 63-cm-ra bitarteko altuera. 20 kg-tik 28 kg-ra bitartean pisatzen dute.

**Maitasunezkoa bere moduan**

Setter Irlandiarra bere jabearekin eta pertsona batzuekin oso maitasunezkoa da. Dena den, aginduak egin nahi ez ditueneko

# SETTER IRLANDARRA

an, paso egiteaz gain, ez du men egiten. Jeneralki nahiko apetatsua da eta denbora, ardura eta pazientzia asko ikasteko behar ditu, izan ere gauzak ulertzea apur bat kostatzen zaio.

Gauzak irakasten dizkiogun bitartean inoiz ez diogu zigortuko, animalia oso sentikorra denez, hau bere izaeraren kalterako da.

Psikikoki hitz eginez, ale batzuk nahiko desorekatuak dira, izan ere, irakastea oso zaila da eta gainera oso burugogorrak dira. Normalean, halako izaeraren akatzak, agertzen dira, aukera egiterakoan itxura estetikoa besterik ez dute kontuan hartu, erabilgarritasuna bertan behera utziz.



Askotan, hazitarako txakur zaharrak, bitxi eta burugogor bihurtzen dira, baina hau ez da gertatzen ez ale gazteekin ez da emeekin ere. Emeak arrak baino mantsoagoak eta otzanagoak dira.

Setter Irlandiarraren nolakotasun bikainen artean, izugarrizko usainmena eta eguraldi txarrerako iraupena, dauzkagu. Bakarrik gehiegizko beroak kalte egiten dio: bere ahalbideak gutxitzen doaz eta bera nekatzen da.

Txakur hau, aditu aztarnaria ere da, zelai irekietan edo basoetan ehiza egiteko gai da. Honi gaineratu behar dio igerilari bikaina dela, nahiz eta ur izotuak egon.

### Txakurkume aukeratzeko ordua

Kumea erosi baino lehen, bere sendotasuna eta bere hanken osaera aintzakotzat hartu behar ditugu. Kumaldi ugariak direnean, kumeek, deskaltzifikazioak eta erraki-



# SETTER IRLANDARRA

tismoa aurkeztu ohi dituzte, hau nabatitzen da, bere hankak ahulak dira eta, eta arku-itxurakoa dutelako, gainera bere sabelaldeak gehiegizko bolumen dauka. Hala ere, irtenbide bat erabil dezakegu: Kaltziozko, fosforozko prestakinak, eta D bitamina erabiltzea.

Kumearengan, mukosen eta ilearen pigmentazioa oso desberdina da txakur helduarekin konparatuz gero. Txakur askok ilaje horixka kolorgea daukate, baina ilez aldatzean, kaoba ilun-koloreko bihurtzen da, oso ederra, zer esanik ez. Setter gaztearen geroko irudia, aditu bat bakarrik iragartzeko gai da, hau dela kausa aukeratzeko ordua, bere gorpuzkeraren edertasunari eta graziari begiratuko diegu, ilearen koloreei baino. Halaber bere osasuna, genealogia, eta gurasoen edertasuna aintzakotzat hartuko ditugu.

Lehenengo hilabetean, Setter Irlandiarra oso delikatua eta sentikorra da eta kontu handia arnasketa-gaixotasunekin eduki behar ditugu: katarroak, birus-konplikazioak…. (normalean ordezkatzaileak izan ohi dira).

Bi edo hiru hilabete duenean txerto tribalentea jarri behar diote (mukieria, hepatitisa, leptospirosisa) eta aldizka, bizkarroiak kentzera eramango dugu.

Kume osasuntsu bat jostalaria da oso. Bere begirada bizi eta garbia da, eta ez dauzka negar-jariorik edo sudur-destilaziorik. Jeneralki beti goze da eta bere kaka inoiz ez da beherakoa. Hasieran bere elikadura, egunero lau bazkaritan zatitu behar ditugu: haragia, fekulak, oreak, irinak, eta inoiz ez diogu emango behi esnerik, kumeentzako esnea baizik.





### Ehiztariaren sena

Bere mugimenduak azkarrak dira, eta bere ehiztariaren senak, oinarrizko ariketei esker, gehitzen dira.

Lehenengo pausua trebakuntza ona lortzeko, behar ditugun aldi guztiak mendira edo zelaira eramatea izango da. Horrela txakurrak, hegaztiaren usaina usnatuko ditu, sastrakaren artean aztarnak jarraituko ditu, eta nahi duen moduan korrika egingo du. Honi esker, muskulatura ez ezik, eskeletoa ere hedatuko dira, halaber, bere gaitasun psikikoak, naturarekin harremanetan haztean eboluzionatuko dira.

Arraza honetan oinarrizko entrenamendua ezinbestekoa da, izan ere, sastrakan zehar ibiltzerakoan gal daiteke edo eskopeta-tiro har dezake. Hau dela kausa berarekin hizkuntza mimikoaren erabiltasuna oso gomendagarria dela, batez ere distantzia handia bada eta zelaiaren erdian badago. Animalia honen berezko joera da bere bidean gurutzatzen diren animalia txikiak hiltzea, baina honek arasoak dakarzkioke, basaberak badira, batez ere. Hobe izango da errespetatzen irakastea, normalean errieta txiki baten bidez nahikoa izan ohi da. Nabargarria da halaber, bere gaitasunak ur-hegaztiak harrapatzeko. Trebetasunak bultzatzeko urarekin harremanetan hasi behar du, adi-

## SETTER IRLANDARRA



bidez eguraldia ona bada edo bere gorputzaren tenperatura igotzen denean. Orduan uretan primeran ibiliko da. Alabaina atzerantz joaten bada, besteren bat uretara sartzea gonbidatuko diogu (igeri egiten jakin behar du zer esanik ez), gureak gauza bera egin dezan.
Arraza honek puntu ahul bat besterik ez du: beroa. Tenperatura oso bero bada, txakurraren iraupena lermatuko da, intsolazioa hartzeko arriskua izango du edo gehiegi nekatuko da. Alabaina ez ditu lehiakiderik izango urtegietan edo uretan sartzeko ordua hegazti bat harrapatzeko.





## COCKERRA

Spaniel arraza oso hedatua eta ospetsua da, errudunak, bere erdipurdiko tamaina, izaera maitekor, alai eta jostalaria eta bere izugarrizko adimena, dira. Bere ilea oso zetatsu, leun eta gorputzaren atal batzuetan oso finua da, eta oso izurtuta beste batzuetan. Txakurraren kolorea aldakorra da: beltz-matea, betza eta kanela-kolorekoa, marroi-kanela kolorekoa baita urre-kolorea ere .39 cm-tik 41 cm-ra bitarteko tamaina izan ohi du, eta 12 kg-tik 14 kg-ra bitartean pisatzen du.
Nahiz eta bere erdipurdiko tamaina eduki, animalia sendo, azkar eta oso kementsua

# COCKERRA

da, atari-txakurra izatera ailega daiteke, bere jabea, basatasun susmagaitza erabiliz, babesteko gai da. Arren izaera eta emeen izaeraren artean izugarrizko desberdintasuna dago, lehenengoak haserrekorragoak dira, eta halaber, ez dira emeak bezain maitekorrak. Honek esan nahi du, etxean umeak baleude, eme bat edukitzea gomendagarriagoa izango litzatekeela.

### Heziketa

Cocker-kumeari etxe-bizitzarako irakatzi behar izango diogu. Bakarrik horrela otzantasun absolutua eta portaera akatsik gabe lortuko ditugu, izan ere maiz, ale helduek, heziketarik ezagatik, bitxikeriak edo apetak erakusten dituzte. Batzuetan ar zahar batzuk, bere jabeekin, umore txarreko eta oldakor bihurtzen dira, nahiz eta txikitan horrela ez izan.



Ur-koloreko ale batzuengan oldakortasuna agertzen da. Kausa honengatik, adituek pentsatzen dute Cockerren portaeraren aldaketa ez dela gertatzen bakarrik heziketa txar bategatik, sortzetiko akatsagatik baizik, izan ere, bere hazleek aukeraketa egiteko ordua, estetika-kalitatea goratu egin nahi zuten baina bere izaera ez zuten aintzakotzat.

Berarentzak ikastea oso erraza bada ere, ohitura desegokiak hartzea ere oso erraza da.

Ez gehiegi mimatu eta ez eman nahi dituen apeteak, gure oinarrizko baldintzak izango dira. Kontuan hartu behar ditugu bere izaera oso gogorra dela eta zahartzen den heinean faktore hau aldatzen dela. Hazi ahala, kanpotarren aurrean orro egiten bada edo defendatu nahi du (nahiz eta leunki hurbildu), errieta egingo diogu eta jolastera eta bizikidetza egitera bultzatuko ditugu. Inoiz ez ditugu onartuko umore txarreko txakur edo marmati bihurtu izango dela. Halako joerak ikusi ondoren korrika eginarazi diogu. Horrez gain inoiz ez dugu onartuko inori ez diola beldurra ematen.

### Garbitasuna eta elikadura

Cockerraren txukuntasuna ezin da izan oso maizkoa, nahiz eta pertsona askok kontrakoa pentsatu. Bere ileak berak gaintz bat jariatu ohi du bere larrua iragazkaizteko eta babesteko. Gaintz hau osatzen duten substantzia batzuk, eguzkiak bizkortu ondoren, D bitamina bihur daitezke. Hau dela kausa ez da gomenigarria sarritan bainuak ematea, honek bere larruari berezko sistema babesteko kenduko dio eta. Maiztasun egokia hilabetean behin edo birritan izango da.



Bainatzeko, uretan, gorputzaren erdira arte, sartu behar dugu, eta xanpu edo xaboi berezi batekin igurtzen behar dugu. Bainatu ondoren ilajea eskuilatuko diogu bi norantzetan: ilez kontra eta ilez alde. Horrela ilearen dirdira eta leuntasun ona lortuko ditugu.

Begiak eta bekarriak kotoi baten bidez, ur epelan sartuta, garbi diezazkiogu, eta hortzak bikarbonatoa erabiliz.

Elikadurari dagokionez esan dezakegu orekatua izan behar dela, eta basikoki haragia edo proteinak emango dizkiogula. Eguneroko janariaren kopurua, bi ordu korrika egiten badu, 400 gr haragi, barazkiekin eta zerealekin osaturik izango dira. Halaber gomenigarria da astero bi gorringo ematea. Ilearen muda ailegatzean, arrain apur bat ematea onuragarria da, izan ere,

# COCKERRA

larruak eta ezkatek sufrezko konposatuak dauzkate, eta ilearen berritzeko eta eraketa egiteko oso garrantzitsuak dira.

### Aparteko ehiztaria

Konpainia animalia ona ez ezik, aparteko ehiza-txakur ere da. Aztarnari jarraitzen aditua da eta bere ahoan erbi handi bat eramateko gai da, bere barailen sendotasunari esker. Zinegetika-argotaren barruan hegazti-txakurtzat hartuta dago, izan ere, aztarnak usainduz orientatzen da, honek esan nahi du bere harrapakinaren arrastroa airean bilakatzen duela.
Hau dela medio haize alde orientatu behar du, untxariek ez bezala, lurzoruan aztarnak arakazten dituztela.



### Historia apur bat

Orain dela zazpi mende gutxi gora behera, txakur bat, Oysel izendakoa, bizi izan zen, Bera, Britania Handiko Irleetako Spaniel guztietako aintzinekoa, izan zen. Txakur hauek menperatze erromatarraren Hispaniatik etorri ziren. Beren trebetasunen arabera bi motatan banatu ohi dira: uretako Spaniela eta lurretako Spaniela. Inglaterran, XVIII. mendean txakur aztarnarien bi lerro handi zeuden: batak ehiztariarengana edo zapelatzarengana harrapakina altzatzen ezpezializaturik (falkonerian oso erabilitak dira), *"Springer Spaniel"* izendatuak izan ziren, eta besteek, *"Cocking Spaniel"* izendatuak, oilagorraren ehiza (edo woodcoc) egiten zuten.
Beren jatorrietan, txakur hauek belarri oso luzeak zeuzkaten, ilajea oso polita, gorri eta zuri-kolorekoa, eta izugarrizko trebetasun ehiztaria zeuzkaten. Arrazaren hasieran ekialdeko gurutzatze bat sartu zen-zehazki, odola Txinatik etorri zen-. Hau dela kausa ondorengoek tamaina txikiagoa zeukaten eta trebetasun ehiztaria hobetu zuten.
XIX. mendean, zehazki 1879ko ekainaren 14an, Obo jaio zen, -gaur egungo Cockerraren aitatzat hartuta-. Txakur polit honek mantua beltza zuen eta kumaldi asko izan zituen.
Bere seme bat -Braebside Bob- AEB-etara inportatua izan zen eta azpi-mota bat ezarri zuen: Amerikako Cockerrarena. Gaur egun, pertsona askok Cocker Spaniel-a maskota bezaka aukeratzen dute, bere edertasunagatik ez ezik, ehiza egiteko aparteko trebetasunagatik ere.



# ALEMANIAKO ARTZAIN-TXAKURRA

Alemaniako artzain-txakurra animalia sendoa da, erdipurdiko tamaina du (60-65cm). Bere gorputza luze samarra eta gihartsua da. Bere ilea beltza, grishauts kolorekoa edo gorrixka gastainakolorekoa, motz, leun, gogor, dentso, eta trinkoa da. Arraza honetan ez dago motarik.

Bere izaera bizi eta iratzarria da, bere sentimenak osogaratuak direnez edozein xehetasun kontuan hartzen du. Bere belarria gizakion belarria baino sentiberagoa da (300 aldiz gutxi gora behera), Adituen arabera, bere usainmena gizakionarena baino zorrotzagoa da (10000 aldiz). Gizakiok 5 milioi usainmen-zelula dauz-

# ALEMANIAKO ARTZAIN-TXAKURRA

kagu, Alemaniako artzain-txakurrak, aldiz, 200 milioi dauzka. Guk, usainmenari esker, badakigu jangai freskoa dagoen ala ez, txakurrak ordea, usainmenari esker, gauzaren identitatea jakingo du baita pertsona baten emozio-egoera ere. Orduan geure etxean pertsona bat badago eta txakurrak ez zaizkio batere gustatzen, haien artean batera ezintasuna sortuko da eta pixkanaka-pixkanaka gehituko da.

Animalia honen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat bere izaera orekatua da, baita bere adimena eta ikasteko erraztasuna ere. Honek esan nahi du aparteko txakurra dela pertsonen eta objetuen zainketarako eta defentzarako. Honi esker, konpainia animalia ospetsu bihurtu ohi da.

Alemaniako artzain-txakurra oso esanekoa da eta bere jabearekiko entrega handia eta menpekotasuna dauka. Halaber, oso zaila da ziria sartzea. Kanpotarrekiko axolagabetasun handia sentitzen da eta inoiz ez du pentsatzen lagunak direla, nahiz eta haiek txakurrari bisita egin eta laztandu. Nahiz eta adimena eduki eta pertsona askok pentsatzen duela pentsatu, ez da animalia pentsatzailerik, berak ez du ideiarik egiten, berak sentimen-estimuluei esker egiten duena egin ohi du, inguratzen zaizkion gauza guztiak eragiten zaizkio. Modu horretan, inguratzen zaion giroa atsegina bada, bere baldintza psikikoak hobeto garatzen ditu eta beti alaia eta eskerronekoa egoten da. Aitzitik, trebatua ez dagoen aleari errieta egiten diogu edo kolpeak ematen dizkiogu, desorekatu bihur daiteke. Halaber, gauza bera gertatuko da jabearen oldakortasuna edo suminkortasuna nabaritzean.



Alemaniako artzain-txakurrak 8-12 hilabete dituenean, bere izaera lortzen du, dena den hau alda daiteke, izan ere, 3 urterekin portaeraren jarrabideak alda ditzake.

Txakur honi familiaren barruan bere lekua eman behar diogu: umeen laguna izan daiteke, partaideen begiralea, edo etxeko zaintzailea.

### Arrazaren txakur baten nortasuna

Arraza garbiko Alemaniako ertzain-txakurren nolakotasunak, hauexek dira: nerbioen irmotasun, fideltasun, lerdentasun, erostezintasun, eta erabateko otzantasuna. Hala ere irakastea beharrezkoa da. Faktore batzuk egon badaude guragarria dena moldeatzeko: Kumea genetika-aukeraketa arduratzu batetik aterata izan behar da eta jaio bezain laster, bere jabearekin egon behar da, honek inguratzen zaion mundua irakatsiko dio pazientziaz. Gure txakurra ausarta izatea nahi badugu bakarrik gurekin egon behar da eta ez beste pertsonekin batera. Geroago nahi dugun izaera erotua daukanean ez da arazorik egongo.



Heziketa emateko ordua, familiako partaide guztiek ados egon behar dira gorespenaren edo gaitzespenaren hitz berberak erabiliz.

Gaur egun, Alemaniako ertzain-txakur trebaturik erostera joera handia dago. Modu honetan txakurra erosten duen pertsonak kumearen deserotasunak saihes ditzake. Hala eta guztiz ere, pertsona askok ez dute txakur heldua erosi nahi, familia berriari ez zaiola ondo moldatzen pentsatzen dutelako. Baina errealitatea beste bat da, ondo prestatua eta psikikoki orekatua dagoen animalia guztia, adoptatu ondoren (bi edo hiru ordu pasa eta gero) bere giro berriarekin identifikatu ohi da, hau bere diziplinagatik da. Gainera txakur trabaturik bere jabeari inoiz ez dio kosk egiten nahiz eta jabeak berari krudelkeriaz kolpeak eman.

### Elikadura eta zainketak

Alemaniako artzain-txakurrak ez ditu behar maizko bainuak, izan ere bere ileak laztantzerakoan laztura galduko du. Neguan, hilabetean behin eta udan gehienez ere, birritan bainatuko dugu. Bere ilajea ezin dugu behin eta berriro eskuilatzen.

Elikatzeko arau orokorra jarraituko dugu: ez eman koipetsuen gehiegikeria nahiz eta bazkarietan gantz apur bat jan behar. Ur ugari, fresko eta garbia behar du.

Errazio orekatuak proteinak, gantzak, gluzi-

# ALEMANIAKO ARTZAIN-TXAKURRA

doak, mineralak, eta bitaminak osatzen ditu. Ez da ona behin eta berriro janari ontziratua ematea. Noizean behin haragi freskoa ematea gomendagarria da, baina produktu prestaturik ematekotan pientso eta produktu lehorrak emango dizkiogu.



### Heroien arraza

Bere jatorriak, Canis familiaris metris optimae-arengan bila daitezke, honek orain



dela 6000 urte Lurra populatu zuen.Gero, artzain-txakur persiarrarekin gurutzatu egin zen eta denboraren poderioz artaldeak zaintzeko erabili zituzten. Askotan libreki noraezean ibiltzen zirenez, otsoekin gurutzatu izan ziren. Animalia erdi-basati hauek (edo haietako batzuk) Alsazian eta Alemanian aurkitu izan ziren X. mendean monje batzuek Munsterreko Haranean Komentu bat eraiki nahi izan zuten eta hemengo txakurrek Eskoziatik ekarri zituzten txakurrekin gurutzatu zituzten. Hau zela kausa, arraza berri bat agerpena: Munsterreko Abadiako artzain-txakurra, gero Alsaziako artzain-txakurra izango zen.

Baina gaur egungo Alemaniako artzain-txakurraren aukeraketa, 1884-1899-ren artean gertatu zen. Max Von Stephenitz, zaldieria-kapitainak Alemanian zeuden







hiru artzain-txakur mota banatatik hazleei alerik onenak gorderazi zizkien. Alde batetik Hegoaldeko eskualde menditsuetatik artzain-txakurra zegoen, hau astuna eta trinkoa zen. Bestetik, Iparraldeko lautadetako artzain-txakur arina eta korrikolari ona zegoen. Eta bukatzeko, bi arraza hauen gurutzatzea zegoen: ile luzea zeukan artzain-txakura.

Max Von Stephenitzek hazkuntza odolkidearen programa bat proposatu zuen, planteatu zuten standarraren barruan, ale batzuk, lortzeko. Horrela, 1899. urtean Alemaniako artzain-txakurraren Elkartasuna fundatu zuen. Goiz, erakunde poteretsu bihurtu zen, 30000 partaide baino gehiago, eta ehunen bat elkarte afiliaturik zituen.

Gaur egun, Alemaniako artzain-txakurra gizakion aliatu ordezkaezin bihurtu da, gainera zerbitzu asko ematen dizkigu: itsuaurrekoaren lana, edo sutean, sorosle bezala, beldurrik gabe zaurituen bila joaten da. Halaber, aireportuetan fardeleriak kontrolatzen ditu eta bere aparteko usainmenari esker lehergailuak aurkitzeko gai da.

# DALMAZIARRA

Txakur hau, Walt Disney-ren filmeari esker (101 Dalmaziar) ,umeen artean oso herritarra da. Dalmaziarraren ilajea zuri orbanduari eta bere zilueta harmoniotsuari esker, konpainia animalia dotorea da, itxuraren bakarra da.
Txakur orekatu, maitekor eta sentikorra da. Sendotasun handia, arintasuna eta iraupena ditu. Memoria ona du, hau dela kausa, heztea oso erraza da.
Bere izaera alaiari eta jostalariari esker, umeen tratu desegokiak jasatzeko gai da, baina umeek oso goiz, txakurrarengan kide alai eta bereiztezina aurkitzen dute.
Oldakorra izatera ez ailegatzean, aparteko atari-txakur bat izatera ailega daiteke. 1970 arte atariko-txakurtzat hartuta izan zen, baina handik aurrera Nazioarteko Txakur-Federazioak konpainia txakurren artean sailkatu zuen.
Arraza honen jatorriak nahasgarriak eta kontraesanakorrak dira. Nazio batzuek arraza hau haien artean eduki nahi zituzten eta elkarri ohore hau eztabaidatzen zioten, baina ezin zituzten datu nahikoak eman egiaztatzeko.Txakur honen izenak teoria eztabaidezina batekin zerikusirik eduki badauka: Arraza hau Dalmazian sortu zela. Dena den dakigun gauza bakarra da, aintzinako deboratan agertu zela, izan ere Egiptoko papiroetan eta Ekialdeko eta Greziako zibilizazioen erreliebe batzuetan agertu ziren txakurren larruek Dalmaziarren antza zuten.

### Hautaketa

Nahiz eta pertsona askok bi hilabeteko kume nahiago, horrela erraz maitatzen dela eta bere jabe berriari hobe adaptatzen zaiola pentsatzen dituzte. Dalmaziarraren ale lirain bat nahi badugu bederatzi edo hamar hilabeteko kume erosi behar dugu, momentu horretan eratua dago jadanik, izan ere, nahiz eta goiko genealogiaren kume bat izan, hazten den heinean, bere orbanetan akats estetikoak aurkez ditzake. Beste aldetik, adina honekin hartzen badugu, heziketarako eta ikasteko prest egongo da, gaixotasunerako iraupen handiagoa edukiko du, eta bere elikaduraren aldi larriagoa gainditu du.
Dalmaziar bat erosi baino lehen, bere larrua eta bere orbanen itxura eta antolamendua aintzakotzat hartu behar ditugu. Orbanak ondo mugaturik egon behar eta biribilak izan behar dira, txanpon baten tamaina izan behar dira. Larruaren hondo orbangabearen gainetik azpimarratu behar dira. Bere ilea motz, labur, dentso eta disdiratsua izan behar da.





Aurpegia zuria izan daiteke, baino alerik preziatuenak aurpegian orbanak dauzkatenak dira.
Inoiz ez dugu hartuko hiru asteko kume edo txikiagoa, izan ere, jaiotzean erabat zuriak dira. 15 edo 20 egun pasa eta gero, belarrien eta lepoaren gainean orbanak agertzen hasi dira, handik bizkarrera eta gorputzaren beste ataletara hedatuko dira. Hasieran oso argiak dira, bina pizkanaka-pizkanaka iluntzen doaz. Orbanak beltzak edo marroiak izan behar dira baina inoiz ez daude nahasturik egongo. Betazaleen inguruan ertz beltz bat edukitzea zehetasun preziatua da.
Animalia aukeratzeko ordua, bere sexuan dago gakoa. Bakoitzak bere abantailak eta eragozpenak dauzka. Arra handiagoa da, 55 cm-tik 60 cm-ra bitarteko tamaina izatera ailega daiteke eta 30 kg pisatzen ditu.

# DALMAZIARRA

Emeak ordea, 50 cm-tik 55 cm-ra bitarteko tamaina, eta 25 kg pisatzen ditu. Arra emeak baina politagoa da (itxuraz), baina bere kideekin oldakorragoa da. Nahiz eta ondo ikasita egon, eme bat zelatan ikusten duen bakoitzean bere kateaz tiratuko du. Emeak ordea inoiz ez du hau egingo, sentikorrago, maitekorrago, adiago eta mantsoagoa delako. Gainera, arraren sexua, urtean zehar, ez da lotan egongo.

### Zainketak eta elikadura

Lorategiak edo terrazak dauzkaten pertsonek aukeratu ohi dute, eta atari-txakur bezala daukate. Hala eta guztiz ere, pisu batean ere bizi daiteke, baina orduan balkoi bat mugitzeko eta aire aske gozatzeko behar du.Txakur honentzat, ariketa fisikoak beharrezkoak dira, osasuntsua egoteko eta artikulazio eta muskulu-funtzionaltasuna babesteko. Hau dela kausa, egunero hiru aldiz etxetik at atera behar da, afaldu ondoren batez ere.

Maskota honen dieta bere ekintzaren arabera izango da. Egunero hiru bazkari ematea komenigarria da.. Goizean bere gosarian esnea. Gailetak, ogi lehor edo xigortua, eta arrautza bat egon behar da. Eguerdian eta gauean haragi gordin edo egosia, arrozarekin eta barazkiekin osaturik egon behar da. Kumea egiteko dagoen emeak, elikadura honekin, litro bat esne hartu behar du.

Bere zainketari dagokionez esan daiteke, egunero ilajea eskuilatu behar diogula, apartamentu batean bizi bada, batez ere. Ilearen muda ailegatzean, eskuila gogor bat erabiltzea komenigarria da, horrela, eskuilak, erortzeko zorian dauden ileak, errotik aterako ditu. Bere begiak kotoi bustita baten bidez, garbitu behar dizkiogu, sarritan. Bere hortzak berrikusi behar ditugu lertzoa saihesteko.



### Sabelaldia eta erditzea

Ernaldua izan ondoren, emearen sabelaldiak 63-ren bat egun iraunduko ditu. Erditzeko momentua ailegatzean, seinale iragarle batzuk agertzen dira: errapenen tamainaren gehipena, hanpatu bihurtzen dira eta horitzaz betetzen dira, batzuetan horitza erroetatik ateratzen zaio. Halaber gorputzaren tenperatura gutxitzen da, eta emea erditzeko, bazter lasai baten bila ibili ohi da. Egurrezko kutxa bat balio izango du, baina albo batean beheragune bat egin behar dugu, emea aske mugitzeko -bere kumaldia zapaldu gabe-, eta batera, kumeak ezin direla irteten. Kutxaren hondoan pinudizko txirbilak jarriko ditugu, arkakusoak ez erakartzeko, eta posible bada estalki zurgatzailea jarriko dugu.

Bero egokia lortzeko, kutxan izpi infragorrizko lanpara kokatuko dugu, eta erditzean, emeari bizkortzeko koñakezko tanta batzuk emango dizkiogu.

Arraza honetan zilborestearen aldea oso apurkorra da, hau dela kausa erditzeko zorian dagoenean kontu handia eduki behar ditugu kumeekin eta alde honen zauriekin.



# DALMAZIARRA

Eradoskitzeko zenbaki perfektua seia da. Emea esnea egiteko makina bat da, baina horretarako ematen diogun haragiaren kopurua handiagoa izan behar da. Erditzetik hilabete bat barru emea ahula geratzen da bai erditzeagatik baita edoskitzeagatik ere. Titia kentzeko ordua ailegatu da, baina pixkanaka-pixkanaka egin behar da, kumeak oso sentikorrak direlako. Horrela, egunean bitan 40 gr haragi birrindu emanez, kumeek hartualdiak luzaten dituzte. Batera elikadurak produktu nutritiboekin osatzen ditu. Bi hilabete eta gero, baliagarriagoak izango dira. Titia kendu ondoren, kaltziozko prestakinak,





bitaminak, eta bakailaogibelaren-olio eman behar izango dizkiegu, bere hezurduraren estruktura finkatzeko. Bi urte pasa eta gero, txakurrari txertatu behar izango diogu eta horretarako balioanintz bat jarriko diogu (hepatitisa, leptospirosisa, eta mukieria), bi edo hiru astetan txertoa bukatuko da. Hiru hilabe dauzkanean errabiaren kontrako txertoa jarriko diogu.



# YORKSHIREA

Yorkshire Terrierra, gutxiko tamainaren arrazarik garrantsitzuenetariko eta adimentsuenetariko bat da. 25 cm-ko altuera izatera ailega daiteke (gehiagorik ez), eta 3´5 kg-ko pisua. Luxozko txakurtxoa, eta konpainia animalia zoragarria da. Bere jabea laztantzea eta orraztea nahi ditu eta trapu baten bidez -sokatiraz- jolastea asko gustatzen zaio.

Bere izaera alaia eta soziablea da, genio txarra eduki ahal ba du ere, ondo hezten ez badugu. Inoiz ez da izango oldakorra edo zaratatsua. Mundua zehatz-mehatz ikusten du eta edozein mugimenduri edo zaratari erne egon ohi da. Oso sentikorra da, horregatik inoiz ez diogu jipoitu egin-

go.
Normalean nahiz eta beste txakur antzekorekin egon, ez dago istilurik, baina bere jabearekin oso jeloskorra denez, batzuetan iskanbilak gertatzen dira. Bere bertuteen artean esanekotasuna dago, baina agindua ematen dion pertsona ez bazaio batere gustatzen ez dio kasurik egingo. Jabeak txakurraren apete guztiak kontuan hartzen baditu, txakurtxoa jasanezin bihurtuko da.



Oso txikia izan arren, Terrier arrazaren izaera berotsua dauka, honi gaineratu behar dizkogu bere sen-gaitasuna eta mugimenduen azkartasuna. Karraskarien ehiztari ona da, ikusi dituen bezain laster, behin eta berriro beren atzetik ibili ohi da. Ataritxakur ona da, bere etxean kanpotar bat hurbiltzen bada, behin eta berriz zaunka egiten du. Bere masailezur poteretsuek objetu handiak eramaten uzten dituzte.
Kumeak jaiotzean, ia-ia beltzak dira. Hazten den neurrian ilajeak helduen kolorea hartzen du. Bere kolorea urdin-metalikoa da, buruan kanela kolorekoaren tonalitateak daude, eta bularra urre-koloreko disdiratsua da. Bere ilea zetatsu, luze eta leuna da, gorputzaren albo banatan erortzen da, eta hain ugaria da ezen buruaren gainetik zinta baten bidez hartzen behar den, bazkarietan ez zikintzeko eta hobe ikusteko.Begizta gorriak bere itxuraz parte eratzen du. Alerik hoberenak dira gorputza luze samarra direnak, eta ilea zeharo leun, disdiratsu, eta finua dauzkatenak. Jaiotzean, kolorea biziagoa da baina gero puntetara argitzera ibiltzen da. .Ematen du Yorkshire animalia kementsua eta ondo proportzionatua dela.





Burua txiki eta zapaldua da; muturra zabala eta begiak ilunak eta disdiratsuak dira.

### Zainketak eta elikadura

Nahiz eta apartamentu batean ondo bizi, sarritan, parkeetara eta lorategietara ateratzea gomendagarria da. Hauek errepideetako urrun egon behar dira, bestela trafiko handia badago txakurrak airerik kutsatuena arnastuko du.
Jatorrizko herrialde hotz batetik, Yorkshire

# YORKSHIREA

txakurrak ez du ondo jasatzen beroa, tenperatua handia ez ezik, giro lehorra ere badaude, batez ere. Nahiz eta neguan pertsona batzuek estalki batekin babestu, ez da komenigarriena, ilajeari kalte egin diezaiokegu eta. Garai honetan aire-korronteak eta erradiadorearen ondoan jartzea saihestu behar.

Bere edertasuna mantentzeko, hilabetean bi aldiz bainatuko dugu eta sarritan bere ilajea orraztuko dugu. Sei hilabete arte, lau bazkari zortzi orduro ematea gomendagarria da. Esnea, ogi xigortua, haragi birrindua, gibel puzka bat, barazki egosia edo barazki-pureak emango dizkiogu. Urte bat pasa eta gero bi bazkari nahikoak izango dira, hauei arautzak, arroza egosia, gailetak, eta arantzarik gabeko arrainak gaineratuko dizkiegu.

Jateko inoiz ez dizkiogu emango soberan dauden arrainak, arrautza txarrak, gozokiak, gazitzeak, gazta legamiaturik, babarrunak, ilarrak. Bere dietaren barruan ogia oso garrantzitsua da, xigortua batez ere. Izan ere, karbohidratoak ditu eta haragi birrindutarekin nahastu behar edo zopan sartu behar da.



Yorkshire txakurrak 300 kaloria behar ditu: 100 gr haragi, 50 gr arroza egosi, 25 gr barazki egosi eta bi gorringo. Sarritan pentsatzen da txakurraren janariak ez duela behar gatzik, baina dosi justu batekin zaporea hobetzen da, digestioa arintzen da baita organismoaren funtzioak ere.

Jaten duen bitartean zirikatzen badiogu digestioa txarto egin dezake eta indigestioaren sintomak aurkez ditzake: goserik eza, umore txarra, tripakomina eta listujariatze ugaria.

Normalean egun bat jan gabe egotea nahikoa izan ohi da. Beherakoa jasatzen badu errazio bat arroza gehitu behar eta gibela gutxitu behar dugu.



### Historia apur bat

Pasa zen mendean Yorkshireko Konderriko meatzariek eta artisauek arraza hau egin zuten, Yorkshirea txakur batzuen gurutzatzeetatik atera zen: Manchesterra, Skye Terrierra, Dandie Diamont-a eta Maltesa.

Meatzariek txakur bat behar zuten, zeinek galerietako eta biltegietako zirrikituetatik sartzeko gai baitzen, handiko tamainaren

# YORKSHIREA

txakurrei ihez egiten zitzaizkien arratoiak ehiztatzeko.
Yorkshirea, izaera handiko ñimiño bat zen, txakur txiki bat bere mugaketaz gutxi jakituna da. Baina karraskaririk oldakorrena aurrez egiteko kementsua da oso.
Hasieran txakur hauek 6 kg pisatzen zuten eta eta 25 en bat cm neurtzen zuten. Gero





Ingalaterrako hazle batzuek, ale txikiagoak eta ile luzeagoarekin aukeratu zituzten. Handik hogei urte arte, txakurraren tamaina txikitzen lortu zuten: 1,5 kiloko pisura arte. Modu horretan behin betiko estandarra lortu zuten: Terrier berri bat izugarrizko edertasunarekin, eta konpainiarako perfektua.
1880.urtean, lehiaketetan agertzen hasi zen, eta handik aurrera Inglaterrako nobleziak nahiago zuen txakurra izan zen. Gaur egun maskoten artean gustukoenetariko bat da, bere tamaina txikiagatik eta bere izaera atseginagatik. Dena den, nahiz eta bere jatorria arrunta izan, zainketa asko behar ditu.
Bere belarriak eta sudurra aintzakotzat hartu behar ditugu. Lehenengoak oso delikatuak dira, lakrimalaren aldean batez ere. Izan ere, hantxe hautza, polena, edo buztina metatzeko joera du. Honek narritadura konjuntiboa sortzen die. Hau gertatzen bada kotoi bat kolirio batean edo kamamila apur batean sartzea komenigarria izango da eta begietatik leunki pasatuko dugu.



Belarriei dagokienez esan daiteke, bi astero behin, belarrien ezkoa atera behar dela, infekzioak saihesteko. Horretarako hatz erakuslea kotoi batean sartuko dugu, baina hori egin baino lehen, ezkoa alkohol apur batekin, oliba-olioarekin,edo ur oxigenatuarekin bustitzen da. Inoiz ez ditugu erabiliko urik edo xaboirik ezta makiltxoa ere.Bainatzean urarekin kontu handia eduki behar dugu belarrietan ez sartzeko.
Normalean bere hortzaginarekin ez dago problemarik. Bi astero behin lertzoaren bila aztertuko dugu. Egotekotan, ogi-azal gogorra, ogi xigortua edo zenario gordina emango dizkiogu igurzketagatik garbitzeko.
Lertzoa metatua badago jadanik, zurda gogorraren eskuila baten bidez, limoi ura bustita, kentzen saiatuko dugu.



# COLLIE-A

Collie-a aintzinako atari-txakurra eta arkumeen gidaria Beheko Eskozian izan zen. Orain luxozko eta konpainia txakur bihurtu da. Bere jarrera aristokratikoa da. Hirietan nahiko ondo adaptaturik dago, baina baldintza batekin: sarritan ibiltzera eraman behar da eta astero behin, zelaira korrika egitera -arriskurik gabe- eraman behar.
Animalia hau oso leial, mantso, pazientzia handiko, eta maitekorra da, umeekin batez ere. Izugarrizko adimena eta sentikortasuna ditu, hau dela kausa ikasteko gai da.
Naturaz txakur minbera badago horixe Collie-a da. Inguratzen zaion giroaren mota oso goiz nabaritzen du, eta kontrakoa bada bere barruan sartzen da -barnerakoia-. Orduan bere mesfidantza beldur bihurtzen da eta bere gordekina afekturik eza bihurtu ohi da. Hau saihesteko berarekin oso maitekorra izan eta adi egon behar da. Familiako kide bat bezala tratatu behar da. Desaireak eta zakartasunak ematea saihestuko dugu. Txakur honi laztanak eta bere jabeen afektua asko gustatzen zaizkio. Goiz, lagun bereiztezina eta aparteko atari-txakurra izango da.
Pisu batean edukitzeko eragozpenetariko bat da asko zaunka egiten duela, baina akats hau heziketa on batekin zuzen daiteke.
Collie-a oso polita ez ezik, sendo, arin eta oso eraginkorra ere da. Arraren gorputza luze samarra da. 55 cm-tik 61 cm-ra bitarteko altuera neurtzen du eta 20 kg-tik 28 kg-ra bitartean pisatzen du. Emearen gorputzak ordez, 55 cm-ko altuera gainditzen ez duen tamaina bat izan ohi du, eta 24 kiloko pisua.



Lepoa eta gorputzadarrak gihartsuak dira. Buztana -neurrizko tamainera- animalia geldirik egoten denean, zintzilikatzen da eta bere puntan gako bat eratzen du. Gako hori animalia urdurik egon ohi denean, igotzen da.
Ilajea dentsoa, gogorra, luzea eta ugaria da. Bere kolorea horimarroi-gorrixkatik, hankak eta bular zuriekin, marmol urdinkolorekora arte ibiltzen da. Bere burezurra zapaldua dago eta muturra pixkanaka-pixkanaka estutu ohi da. Begiak, amandaitxurakoa, lapranak eta marroi-ilun kolorekoa dira. Belarriak txikiak dira.
Nahiz eta animalia gaixobera ez



izan, aldizka bere begiak aztertu behar ditugu, izan ere, erretinan atrofia jasan dezake eta egunez ikusmena galtzen du eta gauez ikusmena gehitzen du.

### Txakur-kume aukeratzeko ordua

Arrazaren estandarraren ofizialaren ustez, Samoyedoa txakur sendo, eraginkor eta barregarria izan behar da.. Bere gorputza luzea baina ondo gihartzua izan behar da, bular sakonaz hornitua, alboak ondo makurturik, eta lepoa, sendoa. Proportzionalki bulararren sakontasunari, hankak zuzenak, gihartsuak eta luze samarrak izan behar dira. Buztana luzea, ondo garatua eta ilez beteta, bizkarraren gainetik makurtuta egon behar da, txakurra adi egoten denean batez ere.
Bere gorputza osoa azpi-ilez estalita dago (dentso, gogor eta kiribilik gabe, hotzez babesteko) .Zuri orbangabeko kolorerik kutunena da, baina beixa, horia eta zuria, zuria eta beltza edo zuria eta marroia onarturik daude.
Bere buruak konoaren antza du, eta bere aurpegia puntan amaitzen da. Belarriak ez



# SAMOYEDOA

dira luzeak baina puntan biribil samarrak dira. Bere begi ilunek, ondo banaturik,eta zakonek bere aurpegiari espresio gozoa eta adimentsua ematen dizkiote. Ematen du bere begirada etorkizunera proiektatua egoten dela. Sudurra eta betazalak beltzak izango dira baina marroiak ere izan daitezke. Ezpainak ordea, beltzak eta lokarrietan altu samarrak izan behar dira. Ematen du barre egiten duela. Ingelesek Txakur irrebarretsua esaten diote.

### Historia apur bat

Canis Lupus Borealisen ondorengoa izanez, orain dela milurteko asko, ia-ia gaur egungo itxurarekin agertu zen. “Cinologos” delakoen arabera, otso boreala Spitz arraza guztien arbasoa da (belarri zuzenak eta buztana makurturik).
Bere izena, Samoyedoen tribu nomadatik dator. Haiek, Siberiako mongoliarrak dira. Ehizari eta arrantzari ekin ohi zioten eta etengabe Itsaso Zuria eta Yenisei Ibaiaren artean ibiltzen ziren. Iparraldeko biztanle hauek, beren txakurrekin beren bizitza partekatzen zituzten: Itsas txakurrak eta mortsak ehizatu ohi zituzten, trineoei tira egiten zieten, ondasunak zaintzen zituzten eta artzain-txakur bezala lan egiten zuten, izan ere, Samoyedoen herriak elur-oreinen abeltzaintza haragia





lortzeko, praktikatu ohi zuen. Beren txakurrek artaldeak gidatu eta zaindu ohi zituzten.
1880. urtean Poloetako esplorazio batzuengatik, Europan, Europako iparraldeko arrazek interes handia sorrarazi zuten. 1889. urtean, Robert Scott Ingalaterrako esploratzaileak lehenengo aleak Ingalaterrara eraman zituen. Hurrengo urtean ale batzuk inportatu zituzten, eta haiekin benetako hazkuntza eta aukeraketa hasi zen. II Mundu Gerra ondoren bere edertasunari eta jatortasunari esker, ospe bihurtu zen. Elurpean lo egiteko, barau luzeak egiteko eta balore nutritiborik eza duen janaria jateko ohitura dituenez ez da zorrotzik bere elikadurarekin Bere dieta idealan 300 gr haragi eta 150 gr arroza barazkiekin dago, baina edozein mota janari onartzen du: bai etxekoa bai jaki ontziratua (hezurrak izan ezik).

# TECKEL-A

Famatuki, Teckelari "saltxitxa-txakurra" esaten diote. Berezko sen ehiztaria du. Orain dela urte batzuk, konpainia-txakur bihurtu da. Mantso, alai eta maitekorra da. Alemanian, Erresuma Batuan eta Suedian, azkonarrak, erbiak, azeriak eta basurdeak ehiza egiteko erabiltzen dituzte, bere usaimen zehatzagatik. Oso zehatza da aztarnak jarraituz, eta gordeleku estuetatik sartzeko gai da.
Teckel arraza zaharrenetariko bat da eta orain dela 5000 urte baino gehiago bere jatorriaren aztarnak agertu zirela. Bere izena, faraon baten hilobi-estatuan agertu zen ale batetik etortzen da. Jenofontek, bere zinegetika-testuetan, txakur hauen balioa goraipatu zituen.
Adituen uztez, bere itxura luzea, gordelekuetatik sartzeko ohituragatik, etortzen da, dirudienez eboluzio baten ondorioa dela. Natura-eboluziori esker, ale luzeak eta txikiak bizirik geratu ziren, galeria estuetan satzeko gai zirenak, eta haiek handiak baina arazo gutxiago daukate bai elikatzeko baita ugaltzeko ere.
Modu honetan nanismoaren anormaltasuna, burdinezko selekzioarekin, garatu egin zen. Gaur egun hiru mota dago: Ile motza eta leuna, gogorra eta luzea. Haietariko banan hiru tamaina desberdina daude: estandarra edo arrunta, nanoa, eta miniatura edo kaninchen-a.
Antzinako Teckelak ile motza eta leuna zuen, gaurkoa baino ile gogorragoa zuen eta burdin hariaren antza zuen. Beste txakurrekin gurutzatzeak egin zituzten-Dandie Diamont Terrierrekin, adibidez. Handik ile gogorra duen mota atera zen (horrela bere ausardia, ilajea eta gogortasuna hobetu zen). Arraza hobetzeko, Basoko Braco txakurrekin eta Deutsches Wachteekin gurutzatu ohi zituzten.





Horrela ile luzea duena jaio zen, politena, zer esanik ez!.
Baina jabeak beti ez du edertasuna bilatzen, batzuetan aparteko ehiza-txakurrak eta miaketa-txakurrak bilatzen zituen. Badaude bi mota Teckelen hazleak: Alde batetik, ale sendoak, tenteak eta haginkariak aukeratu dituztenak (ehizarako) eta beste aldetik, mantsoenak, alaienak eta maitekorrenak aukeratzen dituztenak (konpainiarako). Dena den, ale batzuk zaputz bihurtzen dira umeen inbidia dute.



### Oinorde-gaixotasunak

Nahiz eta panpina iruditu, izugarrizko atari-txakurra da, Teckela. Kosk egitea erabakitzen duenean oso zaila da askatzea.
Gaixotasunei dagokienez esan daiteke, halako oinorde-antolamendu bat gaixotasunak hartzeko duela: diabetea eta mukieria batez ere. Hala ere, hau zuzen daiteke

# TECKEL-A

hazkuntza egokiarekin eta behar dituen txertoak emanez.
Saltxitxa-txakur batzuek jasaten duten paralisia, momentuz, ez dago ondo ikasita eta bere oinorde-faktoreak ez dira argirik, baina suposatzen da, bere jatorria anatomi-antolamendu urri batean dagoela, honek bizkarrezurraren gainean presio bat egiten du. Halaber, barrabil batekin daukaten edo ez daukaten aleek ez dituzte gaixotasunarik, izan ere, oinorde-sortzetiko akats bat daukate





eta horrela jaiotzen dira oinordetza errezesibo sinpleagatik. Teckelaren itxura nahastezina da. Txakur luzea da, hanka motzekin, buru zorrotza eta triangeluarrarekin (oinaldetik sudurraren puntara arte).
Bere begien espresioa argia eta kementsua da. Belarriak ez dira luzeegiak izan behar.
Ile motza duenak, dentso, disdiratsu eta ondo itsatsita, soilunerik gabe, izan behar du. Ile gogorra duenarengan, mantuak gorputza estali behar du, ondo itsatsita eta ile motza azpitik (ahoan, bekainetan eta belarrietan izan ezik).



Bukatzeko esan behar da, ile luzea duen txakurraren mantua leuna eta disdiratsua izango dela, lepoaren azpitik, sabelan, belarrietan eta buztanan batez ere. Estandarraren arabera akatsatzat hartzen da ilaje bat iletsuegia hanketan edo gorputzan zehar, ilaje uniformea.
Mantuaren zainketa motaren arabera izango da. Ile gogorra dutenei, noizean-behin moztu behar izango diegu, eta hilak dauden ileak eskuz kendu behar izango dizkiegu, inoiz ez artazien bidez. Ile luzea dutenei, egunero orraztu eta eskuilatu behar izango diegu. Noizean behin guztiei belarriak, hortzak eta azkazalak garbitu behar zaizkie.
Ez da ona oso sarritan garbitzea, kumeei batez ere. Izan ere, bere larruaren guruinek ilajea garbieta disdiratsua mantentzen dute. Sarritan garbitzen badiogu guruinak asko bizkortzen dira eta txakurrak usaina botako du. Noizean-behin parasitokontrako bainu bat ematea gomendagarria da.
Bere ugalketak ez du arazorik ekartzen. Emeek, kumaldi banatan 2-9 bitarteko alez erditzen dira. Elikadurari dagokionez esan daiteke, ez daukatela arazorik, baina loditzeko arazoa eduki badaukate, alerik zaharrenak batez ere. Hau dela kausa gantzaren dosiak kontuan hartu behar da. Frijituak eta janari egosia saihestu behar da. Ale gazteek gatz mineralak, proteinak eta mineralak -jangai gordinetan oso ugariak- behar dituzte. Zerealak birrinaren itxurarekin eman diezazkiegu- haragiaren osagarri bezala-, noizean behin arrautza bat-oskola birrinduarekin- gehituz eta fruita eta azenario gordinak.

# DOBATXAKURRA EDO DANIAR HANDIA

Dobatxakurrari, bere edertasunagatik eta bere jatorriz helenistikoa izateagatik *"Txakurren Apolo*"-a esaten diote. Ingalaterran, Daniar handia esten diote, konbinazio perfektua da indarra eta dotoretasunaren artean. Hau dela kausa ehiza-txakur bat izateagatik atari-txakur bat izatera pasatu du. Lan horretarako potentzia, altura eta arintasuna garrantzituagoak dira, basatasuna baino. Bere buruaz zaintzaria eta siur, aparteko borrokalaria da, isilpean, zaunka egin gabe, eta oso azkarki, eraso ohi du.

Nahiz eta familia-bisitza maite izan eta bere jabeekin leiala eta bihozbera izan, mesfidati eta arriskugarria izatera izan daiteke. Berez, orekatu eta mantsoa, zirkunstantziek behar dutenean oldakor bihur daiteke: ezezagun batek bere jabeari mehatxaten badio. Osterantzean, ona, maitekorra eta pazientzia handiko txakurra da. Umeak asko gustatzen zaizkio. Baina bere indarraz axolagabea denez ez da gomendagarria pisu edo apartamentu batean edukitzea. Etxe bat lorategi edo patio batekin, korrika edo ariketa fisikoa egiten behar ditu. Heztea zaila da, berarekin inoiz ez ditugu erabiliko indarra edo bortzikeria. Xehetasun bitxi bat da usainmenik ez duela,

Horregatik ahotza erabiliko dugu deitzeko. Ez nolanahi ere, ale heldu bat adoptatuko dugu, txikitatik, bere aurreko jabeak ez badu zaintzen edo ez badago hezita.





Espainian, Alemanian eta Frantzian Alemaniako Dobatxakurra esaten dioten bitartean, (1880.urtean Berlinen ospatu zen txakur-erakusketan, izen hau eman zioten). Ingalaterran, Daniar handia esaten diote (ez dauka ezer ikusirik Danimarkarekin) eta Italian Alano Alemaniarra deitzen da.

Liraina, handietsua, mugimendu harmoniotsuekin, gorputza gihartsua du, tolesturik eta lepaperik gabe.Arrek, gurutzean, metro bat arte neur dezakete eta 70 kg baino gehiago pisa dezakete. Emeak, ordea, ez dira bezain handiak 70-80 cm, gurutzean, eta 45-50 kg.

Bere buru luze, zabal eta trinkoa, lepo poteretsuaren gainean dago. Bere muturra gogorra da, eta adierazkortasun handia erakusten du. Bere aurreko hortzak beheko hortzen gainetik jaisten dira, guraize bezala.

### Ezaugarriak

Kumea hiru hilabete duenean, bere belarriak mozten dizkiote buruarekin proportzioa lortzeko -arrazaren estandarraren arabera-. Hazle batzuek belarriak gehiegi mozten dituzte, beste batzuek ez dute egiten, eta arauen kontra lehiaketetara eramaten dituzte. Bere buztanak erdipurdiko tamaina du, belaunpenaren joaten den heinean, zorrotzen doa. Bere hankak luzeak eta sendoak direnez, bere ibilkera luze, sendo eta malgua da, basati handiak bezala.

Ilea oso motz, zapaldu, leun eta disdiratsua da. Ile luzeegi edo zakarregi duten

# DOBATXAKURRA EDO DANIAR HANDIA

aleak, akastuntzat hartzen dituzte. Kolorearen arabera bost mota ikus ditzakegu: Dobatxakur beltza, altzairuzko urdina, horia (hori-argitik urre-kolorekora arte doa), trigrearen antza duena (hori eta beltz marra zeharkakoekin) eta arlekinaren antza duena, haien artean handiagoa eta poteretsuagoa da, bere ilajea zuria orban beltzekin da, gorputza osoan irregularki banaturik daude.
Ematen du mantuaren koloreak eta izaeraren artean erlazio bat dagoela: Dobatxakur horia beltza baino burutsuagoa eta ausartagoa da. Gauza bera gertatzen da tigrearen antza duenarekin, haien artean bizkorragoa dela. Pazientzia handiko txakurra da umeekin, familiarekin oso maitekorra da eta arrotzekin ez dira oso oldakorra. Bukatzeko, arlekinaren antza duena ona eta adimentsua da. Bera bere ugazanaiak baino flematikoagoa eta patxadatsuagoa da, aginterak egiteko ordua. Haien artean, bere koloreagatik, txakurrik originalena eta apaingarriena dela aintzakotzat hartu dute
Elikadurari dagokionez esan daiteke, arazorik ez duela ematen. Alemaniako Dobatxakurrak jaki prestatuak (pientsoak) eta etxeko jakiak jaten ditu. Bakarrik kontuan hartu behar da: hain handia dela ezen izugarrizko kantitatea behar baitu. Egunero ale heldu batek bakarik kilo eta erdi haragi jan behar du, bi bazkaritan banatuta eta arrozarekin, ogiarekin eta barazki egosi samarrekin nahasturik. Ez diogu utziko loditzeari, bere nutrizioa kontrolatu behar dugu, eta sarritan mendira edo zelaira korrika egitera eraman behar da. Bere zainketari dagokionez esan daiteke, bere ilajea, eskuila baten bidez -





zurda gogorrez- eskuilatu behar dugla. Bere ohea hotzez eta hezetasunez babestua egon behar da.

### Jatorria

Alemaniako dobatxakurraren jatorriaren buruzko hipotesi batzuk badaude, baina onartuenak esaten du Alano-txakurrengandik datorrela, Erdi Aroan Europa osoan, txakur hauek hartzak eta basurdeak ehiztatzeko balio zuten. Alanoak -Tibeteko Dobatxakurrengandik zetozen, erdipurdiko pausua dira Budeoseko Dobatxakurra eta gaurko Alemaniako Dobatxakurraren artean. Hala eta guztiz ere ematen du benetako jatorria, Jesukristo agertu baino lehen, zela, izan ere aleak, gauko txakurren antza dutela, txanponetan agertu ziren (K.a. 36 urtean). Estrabonak edo Pliniok txakur hauek desbribatu zituzten. Baxuerliebe babiloniarretan eta egiptiarretan agertu zirenek badaukate zeozer ikusirik gaur egungo Dobatxakurrekin. Cinologia ofizialaren arabera gaurko Alemaniako Dobatxakurra, Asiako Artzakurra eta Irlandako erbi-txakurraren arteko ondorioa da.

# PINSCHERRA

Pinscherrak haginkaria esan nahi du. Baina txakur honek gutxitan egiten du, arrotzekin mesfidatia ba da ere, bere jabeekin egotea nahiago du. Bere itxura dotoreagatik eta bere gorputzagatik, harmoniatsua da. Bere muskulatura ondo banaturik dago eta trostan ibiltzean, diagonalean egiten du. Bere ilaje leun, motz, gogor eta disdiratsua beltz-kolorekoa tonalitate suarekin izan ohi da, zenbat eta ilunago hainbat eta preziatuago izaten da. Halaber, bere estandarraren barruan tonalitate gastainak, ahuntz-tonuak, gorri-orein kolorea, urdin-grisa, edo grisa zilar-kolorekoa onartzen dira. Bere burua eta gorputza osoa sendoak dira. Burua luzea da, okzipital gutxi nabarmenarekin, begietatik suduraren puntara arte, mailaz-mailako estugune bat osatuz. Begiak obalatuak eta aurrerantz eramaturik dira, betazalek babesten dituzte, behekoen kasuan hain ondo itsatsirik daude ezen ez baita ikusten





# PINSCHERRA

konjuntibarik. Bere buruaren gainean belarriak daude, goiko lotunea dute. Lepo luzeak animaliari itxura noblea eta ondo jarrita ematen dizkio, eztarriaren larrua ez dago zimurturik. Buztanak goiko lotunea du, luzea eta zorrotza da. Normalean hirugarren buztan-ornoaren altuera anputatu ohi da (kumeak zazpi egun dituenean).
Hazten den heinean, bere izaera baieztatzen doa, orekatua eta atsegina batera. Aparteko atari-txakurra da, bere adimenak, noiz arriskua dagoen esaten dio eta bere zaunkak kanpotarrak botatzeko erabiltzen ditu. Hezkuntzan sendotasunarekin, justiziarekin, eta maitasunarekin tratatu behar da, tratu txarrak jasaten ez dituelako.
Erdipurdiko tamaina duenez, edozein lekutan sartzen da eta nahiz eta ariketa fisikoa egitea behar izan, apartamentu





batean bizi daiteke. Oso jostalari, bizi eta alaia da, jolastea eta kirola egitea asko gustatzen zaizkio. Beti arratoiaren edo mofetaren atzetik korrika egiteko prest egoten da, izan ere, ehiztari ausarta eta bihotzgabekoa da. Jarrera zinegetiko hauek Frantzian eta Suedian izugarrizko ospea eman diote. Nahiz eta Europako adituek arraza hau ondo ezagutu, herrialde hauetan ia-ia ez da existitzen (Alemanian, Frantzian eta Herrialde Behereetan izan ezik). Espainian bakarrik hazle batek Pinscherrak hazten ditu, Espainiako hiru ale txapeldunak badauzka. Dena den jarrera hau ulertezina da, izan ere, animalia hau zaintzea oso erraza da, gainera, egunean behin bat bakarrik jaten du. Erdipurdiko tamaina du (15 kg) .Astero birritan, eskuilatu behar da, eta lau edo bost hilabetetan behin, bainatu behar da ile ederra erakusteko. Pinscherra, Alemaniako arrazarik zaharrenetariko batekoa da, Schnauzerrekin ahaideturik, eta geneen emailea Dobermanna lortzeko. Badago Pinscher nanoa, oso ona da, arratoiak ehiztatzeko, Rech deiturik.

# ARTZAIN-TXAKUR KATALANA

Kataluniako autoktonoa da, hango haranetan eta mendietan Gros D´atura deitu zioten eta horrela agertzen da "Libro de Origenes"-en, Madrilen, 1914.urtean, argitaratua izan zen.(RSCF). Artzain-txakur iberikoen artean, arrazarik hedatuena da, azken 30 urteetan "Club del Gros D`atura Catalá"-ren promozioagatik.
Pirinioeakeko natura-hesiagatik, txakur hau isolatua, eta leku harritsuetan atxilotua geratu zen. Bere isolamenduari esker Pirinioeakeko artzain-txakurrarekin desberdintasunak azpimarratu egin zituen. Biek Bergamoko artzain-txakurrari amankomunean dute (erromatar-legioek inperioaren hedaketa egiterakoan eramaten zuten txakurra, izan zen). Batera, Bergamaskoa artzain-txakur Poloniarrarengandik etorri zen, bere jatorria ekialdeko eta aintzinako arrazengan zegoen.

## Motak

Denboraren poderioz Kataluniako artzaintxakurrak Gironan bere kokapen garrantzitsuena dauka. Arraza honek aurkeztu zuen lehenengo erakusketara Bartzelonan izan zen, 1926.urtean. Kataluniako "Real Sociedad Canina"-k egin zuen.
Baina 1970.urte arte ez ziren agertu edertasun-txapelketak.
Gaur egun, Gros D´atura-ren hazleak gurutzatzeen odolkideen arazoekin bukatzeko zorian daude, eta displasiari buruzko ikasketak egiten dituzte ia nola eragin dituzten hurrengo belaunaldiengan.
1929. urte arte, arraza honek estandar ofizialik ez zuen. Estandarraren barruan bi mota daude: ile luzea duena eta ile motza duena. Azken honi"Gros D´atura cerdá" esaten diote.
1982.urtean, estandar honen lekuan beste bat kokatu zuten, baina akats baten ondorioz ez ziren agertzen lehen zeudenak.
Bere estandarraren barruan txakur azkar eta jakintsu bezala agertzen da. Dirudienez atmosfera-baldintza txarrek ez diotela kalte egiten, eta denbora gaitzarekin lan egiteko gai dela, nahiz eta elikadura urria izan.
Arrak 47 cm-tik 55 cm-ra bitarteko tamaina du, emeak ordea 45 cm-tik 53 cm-ra, bere gorputza luzeagoa da altu baino.



Bere buru sendoa, gorputzaren gainerakoarekin konparatuz, ondo proportzionatua dago.
Ezpainak lodiak dira eta belarriak triangeluarrak. Bere begiak biribil, bizi eta ilunak dira, beren begirada adimentsua eta adierazkorra da.
Larrua lodia eta ondo pigmentaturik, gorputzan eta buruan tente dago. Ile luzea duenak zakarra, kiskurra eta lazioa du (ilea), azpi-ile asko, bizarra, bibotea eta azpi-bekainak ditu.



Oso bitxia da bere muda ikustea, izan ere, bi fasetan egiten du. Lehenengoan aurreko aldean ilearen erdia mudatu ohi du, orduan alde batean ilea dago eta beste aldean ilerik ez dago. Gero atzeko aldea muda ohi du, eta azkenean bi aldeak, parekatzen dira.
Txakur hau urrunetik ikusten badugu kolorebakarra dirudi, baina gero hurbiltzen garen heinean, bere ilean tonalitate batzuk ikus ditzakegu. Estandarraren arabera akats larriak dira: buru leuna, belarriak txarto kokatuak, oinak aldendurik eta azkazalak zuriak badira.
Lehiaketetan akats kanporatzaileak dira: pigmentaziorik eza ezpainetan, sudurrean, betazaletan; trufa marroia edukitzea, begi urdinak, buztana makurturik bizkarraren gainean, edo bi edo hiru cm sobera edo gutxiegi.edukitzea (arauaren arabera).
Bere izaeran bi aspektu desberdintzen dira, alde batetik mendian dagoenean lan-txakurra denez bere izaera bere munduaren barruan dago, orduan urruna eta zaputza izan daiteke. Eta bestetik etxean, nahiz eta kanpotarrekin mesfidatia izan, etxekoekin, batez ere txikitatik ohituta badago, maitekor eta bizia da, aparteko atari-txakurra ez ezik, bere jabearekin defentsa-txakurra ere da, bere kemenari eta ausardiari esker. Halaber, etxean beti umeekin erne dago, eta beste txakur zahar bat badago bere agintaritza onartuko du.

## Izaera

Bere tamainagatik, zainketa urriagatik, eta izaeragatik batez ere, apartamentu batean edukitzeko txakur oso erosoa da. Argi eta garbi da, ariketa fisiko apur bat egin behar duela, eta egunean bi aldiz, behintzat, kalera eraman behar da. Gros D´atura artzain- txakur klasikoa da, nahiz eta lotan dagoela iruditu, ardiekin dagoenean, ardi bat, isilpean, urruntzen bada, txakurrak bere burua altxatuko du eta bere ondoan jarriko da, artaldera eramateko. Askotan, bere agerpena nahikoa izango da berriro artaldera joateko, izan ere, ganaduak berari begirune handia edukitzen dio.
Txakur honek zelaian artzainak berari agintzen duena ez du bakarrik egiten, askotan bere erabakiak hartzeko gai da, eta erraz artalde zuzentzen du. Gainera telepatia berezi bat dauka eta honek hurbiltzen diren euriaren eta ekaitzaren arriskuak ulertarazi ohi dizkio.
Bere elidadurak ez du arazorik, etxeko jana-

# EUSKAL ARTZAIN TXAKURRA

Euskal Artzain Txakurra bi barietate dituen arraza homogeno eta ugaria osotzen du, hau da, “Iletsua” eta “Gorbeiakoa”, bi topotipotzat jotzen direla. “iletsua” barietatearen jatorrizko aldeak Euskal Herriko hainbat artzainalde ezberdin hartzen ditu barru; “Gorbeiakoa”, ostera, Bizkaia eta Araba artekoa, Gorbeiako mendigurukoa eta Gorbeiako Parke Naturalekoa da.
Barietate hauen (eme eta arren) gorpuzkera honako ezaugarrion barruan sartzen dugu: eumetrikoa, azpikonbexoa eta luzanga. “Gorbeiakoa” barietatean gehien agertzen den gain-estalkia, tonuera ezberdinetan kolore su-gorria eta gutxiagotan ilehoria da. Azken hau du, hondar kolorearekin edo horigorriekin batera, “Iletsua” barietatearen ezaugarria. Bietan baztartzen dira zuriuneak, urdin-zilerrezkoak eta beltzuneak eta, baita ere, beltzak. “Euskal Artzain Txakurra” motaren beste ezaugarri morfologiko berezi batzuk, orokorrean, honako hauek dira: atzeko hanka bakoitzean sarritan hats bat edo bi atrofiko (ezproinak) edukitzea. Mukosa beltzak eta bizar-lekuan (okotsean) ile luze eta ugaririk ez edukitzea. “Gorbeiakoa” barietateari dagokionean, morfologia-ezaugarri berezi eta nabarmen gisa, gehienek “betertza” eta hiru edo bost orain izaten dituzte aurpegian. Sexuari dagokionean, ez dute alderik agertzen ikertutako barietateek, atzealdearen luzeran, atzealdearen zabaleran, besahezurraren perimetroan, belarriaren luzeran eta buztanaren luzeran izan ezik. Sexu-diformismoa dago. Ez dago elkarren arteko eraginik sexuaren eta barietatean artean. Barietateen arabera, emeek izaten dituzten ezugarri nabarmenenak, buruaren luzeran, aurpegiaren luzeran, aurpegiaren zabaleran, atzealdearen zabaleran eta bularraldearen zabaleran izaten dira. Arren kasuan, desberdintasun hauek barietateen arabera soinerainoko altueran, buruaren luzeran eta aurpegiaren luzeran isaladatzen dira.



**Euskal artzain txakurra. Barietatea: “Iletsua”**

Txakurraren gorpuztzera orokorrean: Eumetrikoa, luzanga, enbor gogor eta eta errektangeluarra. Trostari baten goibeherak dituela. Gorputza *“Gorbeiakoak·”* baino ile zurdatsuagoz estalia dauka. Gain-estalkia ilehoria edo lehoiarenaren-antzekoa eta kanela-antzekoa duena.
Proportzio garrantzitsuak: Altxaketaren eta luzeraren arteko erlazioa sexu bietan 1/1,2koa da eta garezur eta aurpegiaren artekoa 1,5/1 emeengan eta 2/1 arrengan.
Izaera eta portaera: Leialtasun handia duela ugazabarekin lotura estua izaten duen txakurra da. Lurraldekotasun nabaria duena.
**Burua:** Garezur-aurpegiko lerroa urrunkorra eta garezur-soslaia azpikonbexua dituena. Enbor-piramidea luzanga, enborraren garapena kontutan hartuz hainbatetan arina. Gain-estalkian, gorputzeko beste aldeetan baino ile laburragoa du, begiak eskaldu gabe. Sexuen araberako taiuerazko desberdintasuna gutxi markatua.



**Sudurra:** Zuzena, ez luzeegia. Beti trufa beltza izaten du.
**Muturra:** Arina, gaineko soslaia zuzena edo leunkiro azpikonbexua ertzeko aldean. Gorputzeko gainerako gain-estalkian baino kanela-antzeko kolore nabarmenagoa edo beltza duela. Ile laburra.
**Stop:** Zehazkiro nabarmendua, gehiegikeriarik gabea.
**Ezpainak:** Tinkoak eta doituak, ez bigunak eta pisutsuak, ongi estaltzen dutela beheko masaila. Ez du eratzen ezpain-lotune markaturik. Kolore beltza dutela.
**Begiak:** Erdizkakoak, arrautza-antzekoak, betazal beltzak eta irisaren kolorea gaztaina-anbar erazkoa.
**Belarriak:** Gehienetan begiaren bazterreko erpinaren luzapen lerroaren gainetik. Erdizkakoak. Triangelu formakoak eta batzutan hurbileko herenean atzerantz okertzen den tolestura dutela.
**Gurutzea:** Zehaztua. Luzea baina bat ere ez irtena, luzera ertaianeko bizkar zabal, zuzen eta oso indartsuan zehar doana.
**Bizkarraldea:** Saihestezurretan aldaketa leuna eginez gehiegi makurtu gabeko besaburua. Gihar garapen handikoa.
**Buztana:** Erditik gorantz itsatsita zangarreraino heltzen dela. Oso mugikorra. Luzea eta geldi dagoenean okertua. Hiru egoera izan ditzake: atsedenezkoa (behean), arretazkoa (bandera eran) eta jardunezkoa (igitai eran).
**Ankak:** Zaintsuak eta sendoak.
**Ilaia:** Hainbatetan luzea, zakarra, itxura arruntekoa. Laburragoa aurpegian eta soinadarren aurrealdean.
**Kolorea:** Ilehoria edo lehoiarenaren-antzekoa eta kanela-antzekoa.
**Tamainua eta pisua: Soinerainoko altuera** (zentimetroetan)
- Arrengan: 47tik 63ra
- Emeengan: 46tik 58ra.
**Pisua** (Kiloetan)
- Arrengan: 18tik 33ra
- Emeengan: 17tik 30ra.

# BOXERRA

Itsustasunaren txakur eder bezala definitua izan da. Boxerra aparteko atari eta defentsa-txakurra da, oso adi eta zaindaria. Esanekoa, adimen eta oreka handiarekin ditu. Bere hezkuntza egitea ez da saila, horregatik herrialde askotan polizia-txakur bezala erabiltzen dute. Arraza garbiaren aleek duten berezko begikotasunari esker, eta izaera adeitsuari eta jasanberari esker umeentzat jolasteko, oso onak dira. Honi gaineratu behar da oso jostalaria dela, eta maitekorra bai umeekin baita jabeekin ere. Nahiz eta jabeak kolpeak eman, Boxerrak inoiz ez dio bere gorrotoa erakutsiko. Hau dela kausa gaur egun, konpainia-txakur bezala hartuta dago.

Aitzitik, kanpotarrekin oso mesfidatia da, horregatik inoiz ez dugu areagotuko bere basatasuna, oso arriskugarria izango litzateke eta.

Hiri-bizitzak berari ez dizkio arazorik ematen, ondo moldatzen da eta. Baina egunero etxetik at, ariketa fisikoa egitera atera behar da.







# BOXERRA

Boxerra oso garbia eta erraza da mantentzea. Noizean behin eskuilatu behar dugu. Halaber, bere elikadurak ez du arazorik. Txakur honek energia asko gastatzen ditu, hau dela kausa bere jateko gogoa aseezina da. Egunero 400 gr haragi, 300gr arroza, ogiarekin eta barazkiekin nahastutak emango dizkiogu. Gainelikatzen saihestuko dugu, bere osasuna eta itxura fisikoa hunkituko direlako. Animalia hau ez da oso adintsua, jeneralki hamar urte arte bakarrik ailegatu ohi delako. Erreuma-gaixotasunak jasatzeko joera ditu, horregatik euripean paseatu ondoren, etxeratzean ondo lehortu behar da.



Bere hortzek ere albaitariaren kontrolak behar dituzte.

### Ezaugarriak

Boxer on batek beti atenzioa ematen digu. Erdipurdiko tamaina du. Bere osaera fisikoagatik poterearen sentipena ematen du . Ondo muskulatua eta bere hanken gainean jarrita, gorputza orekatu eta harmonikoa aurkezten du. Bere mugimenduak biziak dira, bere ibilkera dotore eta askea, eta bere gorputzespresioa harro eta gorena da.

Estandarraren arabera, arrak 56 cm-tik 60 cm-ra bitarteko tamaina du, eta 30kg pisatu ohi du. Emeak, ordea ez da bezain handia: 54 cm-tik 58 cm-ra bitarteko tamaina du. Bere buruak, orokor-itxuraz, papera oso garrantzitsua jokatzen du. Erdipurdiko tamainaz gorputzarekin konpatatuz izan behar da. Edozein albotik ikusi behar da bere muturra, txikia iruditu



gabe. Hau zorrotzegia edo luzeegia ezin da izan behar. Bere sudurra zut samarra izan behar da baina ez da izango Bull-Dogarena bezain zapaldua. Beheko barailak goiko baraila gainditzen du.

Belarriak, buruaren tontorrean ezarririk daude eta puntan mozten dira. Buztana ere oso motza anputatzen da.

Txakur honek bular zakona du, aurreko hankak zuzenak izan behar dira, bi lerro paraleloan eratuz. Oinak biribil, estu, eta nahiko txikiak dira. Bere ilaje motz, disdiratsu eta arrasoak kolore asko aurkezten ditu. Ilehoria badaude, bere tonua horiargitik erdipurdiko gorrira arte ibiltzen da –preziatuenak horiak dira- eta tigrearen larrua bezala. Hauek hondoaren kolorea horia dute, saihetsezurren helbidea jarraitzen duten zehar- marra askorekin. Hondoaren kolorea eta marren arteko kontrastea nabargarria izan behar da, eta marra hauek, ez zabalegiak ezta estuegiak ere izan behar dira. Orban zuriak, akatsak ez dira, nolakotasun bat baizik. Baina bere gorputzaren heren bat besterik ez dute estalduko. Baina kolore zuria buruan, adibidez ez dago onarturik erakusketetan. Muturrak maskara beltza izan behar du, baina bakarrik leku honetan, izan ere handiago izatekotan txakurraren espresioa, basategia izan daiteke.

### Historia apur bat

Boxerraren jatorrizko enborra, dudarik gabe, Erdi-Aroko ehizarako Alanoa izan zen, nahiz eta arraza batzuk txakur hau lortzeko bildu, bere ezaugarriak azken mendearen amaiera arte ez zituzten finkatu. Arrazan artean dauzkagu: Ingalaterrako Bull-Doga Bullenbeizerra, edo Brabanteko Dobatxakurra, azken hau

# BOXERRA

Belgikan eta Alemanian basurdeak eta hartzak ehizatzeko, erabiltzen zituzten baita zezenen kontrako borroketan ere, eta Burdeoseko Dobatxakurra.
1850. urte arte, Boxerra txakur oso astuna zen, eta Dobartxakurren hurbila zegoen, baina hautaketa zehatz bati esker eta Bull-Dogaren odol-ekarpen berriari esker, proportzio orekatuagoak lortu zituen, horrela bere fisionomia hain gutxi lasaigarria eztitzen lortu izan zen. Halaber hazleek, neurri handi batean, bere atabiko oldakortasuna ezabatu zuten.
1895.urtean arraza zeharo prestatuta geratu izan zen. Data honetan Munich-en Txakur-erakusketa batean arraza aurkeztu zuten. Hurrengo urtean, Boxerraren lehenengo elkartea fundatu izan zen, eta 1905.urtean bere estandarra ezarri zen. Handik aurrera Boxer berria, lirain, arin, amultsu eta alaia, gehiago eskatzen dituzten txakurrenetariko bat bihurtu egin zen, Alemanian batez ere, non II Mundu Gerran zehar izugarrizko lanak egin baitzituen. 1925.urtetik polizia-txakur bezala ezaguturik izan zen. Gaur egun Munduko arraza hedatuenetariko eta ospetsuenetariko bat da.





# CHOW-CHOWA

Chow-chowa txakur-arraza zaharrenetariko bat da. Orain dela urte asko azpi-erreliebe Txinatar batean jarrera ehiztarian, aurkitu izan zen (K.a. 150 urtean). Bere jatorria ez dago argirik. Aditu batzuek esaten dute bere agerpena Tibeteko mastinak eta Samoyedoen gurutzatzeen arteko fruitua dela, beste batzuek ordea, Chow-Chowa Samoyedoen eta Pomeranoen aita dela esaten dute. Dena den, argi dagoena da otso borealaren ondorengo txakurren eratorpen bat dela. Spitz-en taldekoa da eta bere ezaugarririk garrantzitsuena da bere mihia, ahosabaia, eta hortzoiak, urdin ilun-kolorekoa edo morea direla.

Txinako Iparraldekoa da, Chow-Chowa, aintzin-aintzinako denboratik ehiza eta atari-txakur bezala erabiltzen zuten, baina animalia jateko ere hazten zuten. Hamabi hilaberekin hiltzen zuten. Bere haragia oso preziatua zen eta bere haragia arkumearena baino garestiagoa zen. Txinako nobleak bere hazkuntza ordaintzen zuten, beren mahaien gainean jateko. Gero larrua salduta izan ohi zen.

Chow-Chowa jakia izateaz gain, txakur iraunkorra da, ez duela jan behar asko, Pasa zen mendetan trineoei tira egiteko erabili zuten baina ekinaldiek ez zuten ezertarako balio, korrikaldian ez daukalako abiadurarik, gainera morrontza eta uhalak jasatzen ez dituelako.

Txinako Hegoaldean Chow-Chowari *“aho beltza duena”* esaten diote, baina Iparraldean *“Otso-txakurra*” (Lagkou) esaten diote. Bere izena ingeles arruntatik datorrela pentsatzen da. Kaietan, Ekialdeko untziek eramaten zituzten merkantzia txikiei chow-chowak esaten zieten.



1880.urtean lehenengo aleak Europara ailegatu izan ziren (Inglaterran zehar). Baina geroago beren hazkunta hasi zen. 1894.urtean Inglaterrako “Kennel Club”-ak arraza onartu zuen eta handik urte bat aurrera, Erresuma Batean Chow-Chowaren Elkartea eraiki zen. 1900.urtetik aurrera, AEB-etan arraza interresgarri hau ezarri zen. Aukeraketa zehatz bati esker, denbora gutxitan luxo eta konpainia-txakur bihurtu egin zen. Bera, Asiako jatorriz baino ederragoa zen eta bere ilajea finuagoa zuen.



## Izaera

Chow-Chowa ez da balakaria ezta maitekorra ere, izan ere, mendeetan zehar hiltegiko haragitzat hartu ohi zuten eta bere jabeen afekturik ez zuelako. Nahiz eta bere izaera lasaia izan, hotza eta urruna da, nahiz eta oso kanporakoia ez izan, baina jabeak bere afektua lortuz gero maitekor eta konpainia-txakur bihurtuko da, aurkako kasuan askotan, nahiz eta jabeak esaten diona ondo ulertu, agindua ez du bete izango. Kanpotarrekin beti mesfidatia da eta batzuetan oldakorra. Mesfidantza hau Ekialdeko jatorritik dator eta batera maitasunik ezagatik. Kanpotarren agerpena bakarrik jasaten du bere jabearekin badaude, nahi ez duen konpainia jasaten du ,tintik esan gabe.

Nahiz eta zigorrak ondo jasatzen dituela iruditu, bere oroimenan gordetzen ditu eta ez ditu ahazten itzuli arte -herratsu hutsa da- Dena den, erakusten badiogu ondo hezita egongo da. Berez garbia da. Gaixotasunei eta hotzari oso iraunkorra da :estalperik gabe daudenean, txakurrek leku

## CHOW-CHOWA

beroak eta lehorrak bilatzen dituzte elurpe-an edo euripean ez egoteko, ba txakur honi berdin dio, blai dagoenean lur zoruan deskantsatzeko gai da molestatu gabe. Aitzitik udan edo bero handia dagoenean txarto ibiltzen da, eguzkitik at jarri behar dugu eta saritan bustitu behar da, izan ere ez da ona ilea moztea.

### Ezaugarriak

Ekialdeko ezaugarriak mantendu ditu: edertasuna, oreka, duintasuna….Bere gor-putza sendo, poteretsu, eta ganga forma-ko samarra da. Bularra zabala eta zakona da. Nahiko handia da eta 45 cm-tik 53cm-ra bitarteko tamaina izatera ailega daiteke.

Arrak 20 kg-tik 25-kg-ra bitarteko pisua du, emeak ordea, 18 kg-tik 20 kg-ra. Bere oinak biribilak dira eta"katuaren oinak" esaten diote. Aurpegia luzea da eta mutu-rra zapaldua, lodi eta motza, zamur zako-nekin, ematen du umore txarreko txakurra dela. Sudurra beltza da eta begiak txikiak eta oso lapranak dira. Belarriak txikiak eta zorrotzak dira. Buztana motza da eta aurrerantz makurtua dagoenez bizkarraren gainean motots bezala erortzen zaio.
Ilajea luze, ugari, dentso, eta zakarra da, gainera barne-ilea leun eta iletsua du. Kolorea oso aldakorra da eta beltza, gorria, urdina, beixa edo zuria da. Badago beste mota, mantu laburra duena, baina ematen du ez dela bezain preziaturik.





## TERRIER ESKOZIARRA

Apartamentu batean oso ondo bizi dai-tekeen Terrier Eskoziarra, noble eta maitekorra da, eta ia-ia esklusiboki bizi diren eta zaintzen duten pertsonekin maita-tzen da. Kanpotarrekin axolagabekeriaz konportatzen da eta batzuetan, oldakor, muzin, eta haginkaria izan ohi da.
Batzuetan pazientzia gutxiko txakurra da, ez zaio batere gustatzen zakartasunez tra-tatzea, eta beharbada honengatik guztia-gatik, umeak ez zaizkio batere gustatzen, baina txikitatik haiekin hazten bada orduan arazorik ez da egongo.Dena den, etxean ume txikiak badaude txakur hau edukitzea ez da gomendagarria.
Bere itxura sendoagatik eta trinkoagatik izu-garrizko azkartasuna duela dirudi, baina umorista batek lapitz baten bidez bere biza-rra asmatu duela ematen du.
Bere izaera ausart, harro, oso kementsu eta bizia da. Terrier Eskoziarra, terrier guztiak bezala, gordelekuetan ehizarako jaio zen -ekintza hau Ingalaterran mendeetan zehar puri-purian egon zen-. Eskozian XVII. men-dearen hasieran-non jatorrizkoa baita- bere ausardiagatik eta mugarik gabeko emanal-diagatik oso preziatua izan zen. Ez zituen ezagutzen ez beldurrik ezta arriskurik ere.

# TERRIER ESKOZIARRA

Gordeleku estu batean sartzeko ordua inoiz ez zegoen zalantzan, nahiz eta barruan azkonar bat egon -oso arriskugarria da inguraturik sentitzen denean-.





Aparteko ehiztaria eta haginkari nekaezina, terrierren artean aproposenetariko bat da beren babeslekuetatik basapiztiak botatzeko. Oso ona da ere azeriak ehiztatzeko.

1868.urtean Terrier Eskoziarraren moda agertu zen -Yorkeko Konderrian, erakusketa batera aurkeztu zenean lehenengoz-. Handik aurrera bere estandarra finkatu zen eta 1880.urtean *"English Kennel Club"*-aren zerrendan sartu zuten. Estetikoki, txakur original eta dibertigarri bihurtu zen. Handik aurrera, hazleek arreta handiago prestatu zuten eta 20ko hamarkadan ospea lortu zuen, gaur egun arte, hazten jarraitzen duena

## Izaera eta Elikadura

Bere aurpegia aztertuz gero, adimen handiko txakurraren aurrean gaudela ematen du-bere espresio biziagatik-.Bere izaeragatik-beti erne- aparteko atari-txakurra da, zaunkari ona. Iparramerrikarrek esaten dute, txakur honekin edozein gauza edonondik egin dezakeela. Bere gorputza motza da, izter gihartsuak oin biribiletan amaiturik azkazal gogorrekin ditu. Bere buztanak -17 cm-ko luzera gutxi gora behera- tontor zehatza du. Burua gorputzarekin konparatuz gero, luzea eta handia ematen du, normalean beti tente eramaten du, adi-adi bezala. Bere belarri triangeluarrak eta ilez estalirik, buruaren tontorrean daude eta zuzenak



dira. Begiak txikiak eta ilunak dira, inoiz ez dira borobilak. Orbita-barrunbean oso hondoraturik daude. Bere mutur poteretsuak izugarrizko biboateak eramaten ditu- gainera ilearen mozketa bereziarekin joan ohi da-.



Ohiko koloreak dira: gris-altzairua edo pikardatua, beltza eta gastain-kolorekoa.Orbanak ez ditu izan behar, baina edukitzekotan, bakarrik bularran onarturik daude.Arraren tamaina esatandarrak 26 cm du, emeak ordea 24 cm dauka.Arrak zortzi kilotik bederatzi kilora bitartean pisatzen du, eta emeak zazpi kilotik zortzi kilora.

Bere elikadurak ez dauka arazorik etxeko janaria edo pienso delakoa jan ditzake. Osasuntsua mantentzeko, haragi gordina edo egosi samarra, barazkiekin, arrozarekin eta lekekin nahastuta, fruita apur bat, esnea eta arantzarik gabeko arraina emango dizkiogu.

Gogoratu behar da txakurra geure etxera ekarri baino lehen haragi oso egosia jateko ohituta bazegoen haragi gordinaren zaporeari ohitu behar izango diogula, izan ere

## TERRIER ESKOZIARRA

nutritiboagoa da. Halaber bere janaria nahiko hidratatua egon behar da, Adibidez txakur batek egunero bi plato sopa jaten badu ez da egongo egariak, baina katilu ur garbiarekin emango diogu, ura egunero aldatuko dugu eta kloratua bada kaltegarria izan daiteke orduan ur mineralak-ez gaseosak, emango dizkiogu.







## FOX-TERRIERRA

Adituen ustez, lehenengo Fox-terrierra XVIII. mendean agertu zen eta gurutzatze batzuen ondorioa izan zen, hauek Ingalaterrako ehiztari-txakur zaharrari aldatu zioten. Baina mende bat igaro behar izan zuen Mundu-mailako lehenengo txakur-erakusketan, ofizialki aurkeztuta izateko.(1859. urtean

# FOX-TERRIERRA

Newcastlen-Australia-).
1879.urtean Ingalaterran ofizialki onartu zuten. Baina hango garaiaren Foxa eta gaur egungoa ez dute ezer ikusirik: orain, eder, dotorea, eta liraina da oso.
Europan bakealdi ugariek hazleei animalia honen ezaugarriak hobetzeari uzten zizkieten.
Gaur egungo "cinofilia"-ren ustez, Fox-terrierraren bi mota daude: ile leuna duena eta ile gogorra duena. Esaten da, ile gogorra duten aleak, ile leuna duten Foxen anaiak ondo jantzitak direla, izan ere, bere desberdintasun bakarra ilajean datza. Ile gogorra duenak koko-azalaren ilea bezala eduki behar du: dentsoa eta trinkoa. Ile leuna duenarena, ordea, lazio, dentso eta ugaria izan behar da. Bietan zuri kolorea, orban beltzekin, gastain kolorearekin edo jaspeztatuekin nagusitu behar da. Bietan ere, buztana -berezko tamainean-heren bat anputatu behar da. Gaur egun ekintza honek estetiko-helburuak besterik ez dauzka, aintzinean, txakurra gordeleku baten azerien bila sartu zenean eta borrokan liskartzen zirenean, ehiztariak buztana hartuz ateratzen zuten.



### Izaera

Nahiz eta jostari iletsua iruditu, bere jatorriak ehiztari-txakurrengan daude. Izugarrizko izaera duenez, hiltzeari uzteko gai da, amore eman beharrean
Fox-terrierra dinamiko, zaunkari, ausart eta jokuaren laguna da. Berezko kuxkuxeroa da: beti gordelekuetan edo bazterretan usnatzen ibili



ohi dira. Izugarrizko adimena dute, ale batzuek, trebakuntza laburra egin ondoren, goizero, beren jabeentzat egunkariaren bila joaten ikasi zuten. Berarekiko bizikidetasun ona izateko, irmoz hezi behar da, laztan gutxiekin. Modu honetan umeekin maitekorra izango da eta kanpotarrekin oldakorra. Ile kizkurra duen Foxa ile leuna duena baino bihurriagoa eta adiskidetuagoa da. Txakurra gogorra eta iraunkorra da, ez du joera gaixotasunak harrapatzeko.
ariketa fisiko asko egin behar du bere kemena kanporatzeko eta bere silueta dotorea mantentzeko, hau ez egitekotan -apartamentu txiki batean sartzen badugu eta kirolik ez- azkenean bere izaera antipatiko eta zaputz bihurtuko da (bere jabeekin ere). Ale hauek aditsuak dira 15 urte baino gehiago bizi daitezke, baina zahartzaroan epileptiko-atake jasatzeko joera dute, eta emeek, nerbio-sabelaldiak jasatzeko joera dute, horregatik gomenigarria da bere bizitzan zehar, aldi bat edo bitan gurutzatzea.
Txakur hauek beti izaera alai, orekatu , eta eraginkorra izan behar dute. Bere hankak ez dira izan behar luzeegiak edo laburregiak. Estandarraren arabera, Fox-Terrierren burezurra zapala izan behar da eta mailaz maila zabalean begietara txikiagotu behar da. Barailak sendo, eta

# FOX-TERRIERRA

gihartsuak. Sudurra beltza eta begiak, txiki, ilun eta biribilak izan behar dira. Bizkarra, laburra eta estua, ahulezirik ez. 40 cm-ko altuera ,gehienez, eduki behar du eta halaber, 8`2 kg, gehienez, pisatu behar du. Sudur zuria edo orbanekin, belarri lodiak, eta ahoa handiegia akats larritzat hartzen dituzte.

### Zainketak

Txakurra, osasuntsua eta polita mantentzeko, egunero edo txandakako egunetan eskuilatu behar dugu, ile gogorra eta kizkurra duenari batez ere. Eskuila zurdaz izan behar da eta gogorki pasatu behar da ilajearen barrura ondo sartzeko, hasieran ilez kontra egingo dugu eta gero ilez alde. Ekintza honek, ile hilak kentzeko ez ezik, buru-azala sendotzeko eta leuna eta disdiratsua mantentzeko ere, balio ditu. Muda-garaian ilea eskuilatzea oso garrantzitsua da, honi esker, estetika-baldintza onak manten daitezke eta ilearen erorketa ere bizkor daiteke. Ile gogorra duenaren ilajearen edertasuna eta ehundura ondo mantentzeko, bainatu ondoren gomendagarria da “blanco de España” edo klarion birrinduta ematea bere mantu bustitan. Gero tapaki batekin estaliko dugu lehortu arte. Ordu bat geroago, bakarrik eskuilatuko dugu eta bere ilajea perfektua geratuko da. Ile kizkurra duenari noizean behin ilajea moztu behar diogu,-bere estandarraren arabera-. Mozketa eragiketa neketsua denez, txakur-ileapantzaileak egin behar du. Ia-Ia beti eskuz egiten da, metodo bat jarraitzen du:”stripping”-a , hemen metxaz metza ilea errotik ateratzen dute labana txiki horztun baten bidez. Eragiketa honek minik ez du ematen. Gero “trimiming”-a edo akabera egiten da. Ilea ere guraizez moz diezaiokegu, baina berriro hazten denean trinkotasun gutxiago du eta akabera narratsagoa izan ohi da.





### Fox-Terrierraren hazkuntza

Nahiz eta emea bederatzi hilabeterekin guratzaturik izan daiteke ez da gomenigarria egitea bi urte arte, eta hiru araldi pasatu arte. Izan ere, une hori arte emea ez dago zeharo garatua eta kaltegarria izan daiteke bere hazkuntzarako ete bere kumeen bizitzarako.

Bere laugarren araldia hastean, obulazioaren hasiera agertzen da eta estaltzeko unea. Emeari arra erakartzen zaio baina momentuz bakarrik jolasten, usnatzen….Baina arrari ez zaio onartzen eta ez dio uzten zakila sartzen. Estaltzeko onena da araldiko hamargarren egunean egitea eta hamabosgarren egunera arte egin daiteke, izan ere, momentu honetan, emea harberagoa dagoenez arraren

# FOX-TERRIERRA



eskakizunak kontuan hartuko ditu eta emeak berak egoera berotuko du.
Geroko ondorengoak ziurtatzeko, koitoa egin ondoren, emeak ez du pixa egingo hurrengo 15 edo 20 minuto arte, espermaren zati bat galduko lezakeelako. Halaber gomenigarria da bi egun barru estalketa errepikatzea, horrela ernalketa aseguratua geratuko da, eta ez da egongo ezezagun txakurraren sabeladi bat.
Erditzeko unea ailegatzean emeak leku lasai, argitsua eta aisearen korronterik gabe bilatzen du. Erditzeko zorian dagoenean urduritasuna, arnasestuak eta begi disdiratsuak agertzen dira. Orduan, kutxa batean (20 cm-ko altuera, nahikoa izango da). tapaki bat jarriko dugu, horrela lehenengo minak sentizean ezarriko da. Senez, bulba behin eta berriro lamiakatzen du kumeen irteera errazteko. Uzkurdurak agertu bezain laster, banan banan plazentaz estalitak agertzen dira kumeak. Haiek, zilborrestearen bidez, amarekin loturik daude. Banan banan ere amak plazenta kentzen die, biltzen ditu, hortzen bidez zilborrestea mozten die eta gogorki lamikatzen ditu, bularra eta bizkarra presioa eginez, kumeek arnasa hartu arte, marru egin arte, eta hankak mugitu arte. Bukatzeko plazenta jaten du amak.





# DANDIE DINMONT-A

Dandie Dinmonta txakur txikia da, bere gorputza luzea da ete bere begirada oso adierazkorra. Ororen gainetik Terrier desberdin bat da: maitetsu, sensibera,mainontza, eztitsu, jostalaria …Bere ileak eta gorputza luzangak nortsun liluragarria ematen diote , izan ere, bere ilea eta Eskoziako Terrierraren ilea baino leunagoa da, gainera bere begien gainetik tupe barregarria erortzen zaio. Bere burua handia eta biribila da.
Dandie konpainia-txakur bat oso preziatua da, bere izaera alaitsuagatik eta bete tamaina txikiagatik: 20cm-tik 25 cm-ra bitarteko tamaina du, eta zortzi kg pisatzen du. Bere buru handia gogorki eginda dago baina neurrigabea ez da. Bere giharrak oso garaturik daude, barailetan batez ere. Bere bekokia konkortua dago eta bere burua, ile zetatsuez eta oso leunak estalita dago. Ilexerloak ahalik eta argien izan behar dira. Masailak pixkanaka-pixkanaka leuntzen dira mutur sendo eta zakonara arte, hau ilez estalita dago baina burezurraren ilea baino ilunagoak dira. Bere begiek, banaturik, handiak eta biribilak, ilunak, begirada malekoniatsua eta adimentsua adierazten dute.

### Historia apur bat

Bere belarri zintzilikariak puntan leuntzen dira (7cm-tik 10cm-ra bitarteko tamaina dute) eta haien kolorea eta mantuarena harmonizatzen da. Alearen kolorea piperbeltza bada, belarriak ile leunez, eta ilunez estalirik egon behar dira. Txakurraren kolorea ziapea bada, belarrien kolorea gorpu-

# DANDIE DINMONT-A



tzarena baino ilunagoa izango da, baina inoiz ez da beltza izango. Dena den, ale guztiek ile argien marra bat, tupearen ehundur berdinez, eduki behar dute. Txakurrak urte bat edo bi urte eduki arte, marra hori ez da agertzen. Bere ilajean ile gogorrak ile leunekin nahasten dira. Bere kolorea piperbeltza edo ziapea da. Txakur honek, ia-ia beti bularran ile-xerlo zuri bat dauka eta ale batzuek hatz zuriak dituzte. Dena den, oinak zeharo zuriak badira akatsatzat hartzen dituzte. Azkazalak ilunak dira.



Dandie Dinmonta orain dela 200 urte jaio zela, arratoien ehiztari-txakurra izan zen. Dirudienez Cairn-a eta Border Terrieraren arteko gurutzatzearen fruitua da. Eskoziako mugan zehar bizi ziren ijito nomaden taldeek gurutzatze hauek egin zituzten, txakurrak ehiza egiteko behar zituztelako.Aditu batzuek esaten dute gurutzatze hauetan Skie-aren odola agertu zela eta hau zela kausa bere hankak hain motzak zirela. Birminghanan, 1879.urtean lehenengo aldiz, erakusketa batean ale batzuk aurkeztu ziren baina epaileak, sasikumetzat hartu ondoren, ez zituen onartu. Handik aurrera hazleek eta amateurrek interes handiagoa arrazan eta bere jatorrian jarri zituzten. Otterhoundaren odola eta Bedlingtonarena sartu zuten, gaur egungo Dandie Dinmonta lortzeko arte. Azken mendean zehar bere itxura ez da aldatu.





# BORDERRA



Borderra, Terrierren artean txikienetariko bat da. Bere buruak igarabaren buruaren antza du. Bere aurpegiak, burugogorkeria barearen espresio du. Animalia landatar hau artzain-txakurra eta ehiza-txakurraren artean dago, baina Ingalaterrako eta Eskoziako konderri mugakideetako natur-arrazaren barruan dago. XIX. mendetik aurrera ospea hartu zuen (oso ona zen gordelekuetan azeriak ehizatzen). Handik bere ospea etorri zen eta *“Mugako Terrierra”* esaten zioten.
Izugarrizko bizitasuna duenez zaldi baten urratsak jarraitzeko gai da edo untxariekin azerien bila gordelekuetara beti joateko prest dago.
Nahiz eta tamaina txikia eduki, ani-

# BORDERRA

malia oso kementsu eta ausartia da, minari oso iraunkorra da. Bere lana primeran egiten du: ehiztari-txakur edo atari txakur bezala. Etxean oso ondo adaptatzen da, beste animaliarekin lagundu ohi du eta umeak asko gustatzen zaizkio. Bere ohituren artean ariketa fisikoa egitea dago -bere bizitasun handia lasaitzeko- eta noizean behin eskuilatzea-azalekoa-.

Bere elikadurak ez du arazorik: 420 gr haragi edo katilu eta erdi janari lehor nahikoak izango dira sasoi onean mantentzeko. Bakarrik errazioak gehituko ditugu izugarrizko ariketa fisikoa eragiten badiogu.

Bere itxuran, ez da beste Terrierrena bezain liluragarria, buruak mutur motza eta sendoa du. Begiak ilun eta biziak dira. Belarri txikiak, V-ez, eta aurrerantz eroriak. Gorputzadarrak ez dira astunegiak.

Buztana lodi eta motza da. Bere ile gogor eta dentsoa gorri kolorea, beltzarana, gatz eta piperra, sua edo urdin zakona izan daiteke.

Normalean 25 cm baino gutxiago neurtzen du eta zazpi kilo pisatzen du. Hiltzaile txiki bezala Dandie Dinmontarekin ahaideturik dago







# SMOTH COLLIE-A

Ile motza duen Eskoziako artzain-txakurra (Smoth Collie-a) Rough Collie-aren anaia da. Bere ilaje liluragarriak Smothari ospea kendu dio. Dena den, txakur honek edertasun handia du. Eskoziako Irleetako inbasio erromatarraren garaian txakur honen jatorria dago (500. urtean). Garai horretan tropa erromatarrek atari eta ehiza-txakur mota batzuk eraman zituzten. Hauek bertako Eskoziako txakurrekin gurutzatu zituzten, honen ondorioz arraza berriak



# SMOTH COLLIE-A



sortu ziren eta gero aukeraturik izan ziren.
Hango garaiaren Collie-ak gaurkoak baino txikiagoak ziren. Smoth-ak ganaduaren gidaria zen. Bere lanean arkumeak merkatura eramaten arduratzen ohi zuen. Ordutik Smoth-a Rough-a baino sendoago, handiago eta basatiagoa zen. Alerik zaharrenek mantuaren gainean orban handiak zeuzkaten. Erresuma Batuako erakusketetan (1860.urtean) Rough-a eta Smoth-a elkarrekin lehiatu ziren eta bakarrik 1870.urtean, Darlingtonen, ile motza duenari kalifikazio desberdina eman zioten eta banaturik geratu izan ziren. Inglaterran, 1870.urte arte Smoth-ak ez zuen berezko estandarra. Gaur egunez ez dago argirik haiek biek enbor berberatik atera badiren edo ez. Ikertzaile batzuek esaten dute, aukera lana begitatuz egin zutela: Smoth-ak ganadua gidatzeko balio zuen eta Rough-ak ganadua zaintzeko balio zuen. Beste batzuek bi arraza autoktonoak zirela esaten zuten. Erresuma Batean arraza bien arteko gurutzatzeak oso arruntak dira, mota indartu nahi dutenean batez ere. Espainian, aitzitik, gurutzatze hau debekatuta dago.



## Izaera

Lehenengo aldiz ikusten baduzu, animalia argi, eta eraginkorra dela ematen du, mugimendu dotoreekin. Dena den, bere nolakotasunak bere izaeran daude: oso adimentsu, maitekor, eta gozoa da oso. Jabeekin egotea gehien gustatzen zaiona da: bere aulkia kentzea, oinen artean lo egitea musika entzunez……Hain kuxkuxeroa da ezen telebistako saioak ikusten baititu eta une osoan bere jabeak zer egiten duen ikusten baitu. Bitxia da ikustea bere senaren gaitasuna, jabearen gogoa gauzak egiteko susmoa du, eta jabeari, larrialdietan bere afektua eta ulermena ematen dizkio.
Ile motza duen Collie-ak bere jabearekin harreman adimentsu eta maitekorra lortu behar du. Begirunea eta ulermena behar ditu. Umeekin fidela eta pazientzia handikoa da, baina kanpotarrekin mesfidatia da oso.
Smoth-a eta ile luzea eta gogorra duen txakurra, berdinak dira, desberdintzen dena ilajea da. Sendoa eta gihartsua da baina batera, bizia eta arina. Bere burua luzea da eta begi lapranak ditu, gaztain ilun-koloretakoak dira, bere begirada oso gozoa da. Belarriak, beren oinaldian handi eta zabal samarrak dira, adi dagoenenan herenan tolestatzen dira -soinu urrunak hobe entzuteko-.
Bere gorputza, bere altuerarekin konparatuz, luzea da. Bularra zakona eta lepo sendoa du. Bere mantuak ile motza, zakarra eta leuna du. Onartu dauden koloreak hauexek dira: horia (urre argi koloretik beixara arte) urdin-zozo-kolorea eta hiru kolorekoa.



## Ezaugarriak eta zainketak

Ezaugarrien artean nabarmenagoa bere

## SMOTH COLLIE-A

ibilkera da. Ibiltzean, aurreko hankak elkar samarrak eramaten ditu eta inoiz ez da ukondoak ateratzen.
Arrak 56 cm-tik 61 cm-ra bitarteko tamaina du eta 20 kg-tik 29 kg-ra bitartean pisatzen du.
Nahiz eta bere ilajea motzagatik guk pentsatu ahal izan, zainketa espezifikorik dituela behar, errealitateak beste gauza esaten digu: ile gogor, disdirats eta osasuntsua edukitzea nahi badugu txakur-edertasunaren produktuak erabili behar izango ditugula. Eskoziako artzain-txakurrari: bai ile motza duenari baita ile luzea duenari ere, bainu gutxi eman behar dizkiegu eta ez ditugu erabiliko produkturik ile leuntzeko edo biguntzeko. Onena da detergentea erabiltzea. Izan ere, “glamour”-ra berezia ematen dio. Bere ilajea disdiratsua egotea nahi badugu bisoi-olio apur bat botako diogu eta gero gamuza delako baten bidez edo gomazko eskularruen bidez igurtziko dugu. Gainerantzean, egunero ilajea eskuilatzen badugu nahikoa izango da osasuntsua eta baldintza onenean mantentzeko. Elikadurari dagokionez esan daiteke, egunero markako pote eta erdi edo markako bi pote haragi (450 gr haragi) edo bost katilu janari lehor osoa emango dizkiogula.







## BEDLINGTON TERRIERRA

Dauden txakurren artean, Bedlington Terrierra, txakur bitxienetariko bat da. Izan ere bere ilaje zuriak eta ile mozteko itxurak arkumearen antza ematen diote. Dena den, bere antza bakarrik fisikoa da, izorratzen badugu izugarrizko etsai bihurtzen da eta txakur-taldeetan arriskugarria izan liteke.

Txakur honi bere gaur egungo morfologia lortzea asko kostatu zitzaion, arraza batzuen arteko gurutzatzeen fruitua da. Apainketa batzuk igaro ondoren, gaurkoa lortu zuen: ardiaren itxura duena, baina burezurra eta muturra errefinatuekin.
Bedlingtona txakur apala da. Antzinean Ingalaterrako meatokietara joaten zen, hantxe, pikatzaileek galerietako arratoiak

# BEDLINGTON TERRIERRA







eta saguak ehiztatzeko erabili ohi zuten.
Handik aurrera esaten da bohemiarrek maskota bezala adoptatu zutela eta gaur egun konpainia-txakur bitxia dela. Polita eta iraunkorra. Nahiz eta bere itxura delikatua izan eta umeak asko maite, aparteko atari-txakurra da. Arraza hau heziketarako oso ona da.
Ale batzuek esanekotasuneko lehiaketetan parte hartu zuten, arrakastaz.
Bedlingtona bizi, kuxkuxero, eta jostalaria da. Basoan lasterketak egitea edo pilota batekin jolastea atsegin zaizkio.
Dena den, apartamentu batean primeran bizi daiteke baina ibilaldi luzeak eta erregularrak eman behar ditu.

## Zainketak

Bere ilajea ez zaio erortzen. Modu honetan, jabeak ez ditu hartu behar estatikorik geratzen diren ile hilak, orraziak kendu arte. Bere zainketa berezien artean bere ilajearen mozketa erregularra dago. Aitzitik, izugarrizko nahaste-borrastea pairatuko du. Egunero eskuilatzea gomendagarria da, eskuila gogor samarrekin.
Sarritan bainatzen badugu bere ilajea ahul daiteke. Maiz pintza baten bidez belarrietan sartzen zaizkion ileak kenduko dizkiogu.
Bere elikadurari dagokionez esan daiteke, egunero markako pote haragi-produktu (420 gr) edo katilu eta erdi janari lehor osorik emango diogula.

## Historia apur bat eta ezaugarriak

Bedlington Terrierra antzinako arraza batekoa da, urteetan zehar transformatua.
1792.urtean lehenengo aldiz publikoki arraza hau aurkeztua izan zen, garai horretan Dandie Dinmontaren antza zuen. 1835.urte arte bere izena -Rotbury Terrierra-zen baina handik aurrera



aldatzea erabaki zuten Bedlingtonaren izenarekin geratuz.
Joseph Ainsley-ak, txakur honen gaurko itxura lortu zuen, horretarako Otterhoudekin, Wippetekin eta erbi-txakur txikiekin gurutzatu egin zituen. Modu honetan bere hankak luzatzea lortu zituen, baita bere itxura argaltzea eta bere bizkarrezurraren kurbadura tipikoa egitea ere. Bera zen, izena aldatu zuena lehiaketarren



# BEDLINGTON TERRIERRA



barruan erregistratzeko.
Bere itxura hobetuz gain, bere izaera ere sendotu egin zitzaion. Izan ere, berez ausarta eta borrokalaria zen baina gero bere buruan izugarrizko konfidantza hartu zuen eta bere ausarkeria, batera, gehitu egin zen.
Txakur hau jendeari hainbeste gustatu zitzaion ezen handik aurrera bere hazkuntza sistematikoa izaten hasi baitzen. 1860. urte arte lehengo aldiz arraza erakusita izan zen eta hamabost urte geroago lehenengo "Bedlington Terrier Club"-a sortu zen.
Gaur ere bere zen ehiztaria kontserbatu ditu, bere jatorrian untxiak eta erbinudeak harrapatzeko balio zitzaion. Normalean bere nolakotasunak atera ohi ditu, nahiz eta bere jabeek bere edertasunatik probetxu atera nahi izan. Pasa zen mendean, bere eskuak zeharo mozturik uzten zitzaizkion edo Canichearen lehoiaren moduan uzten zuten.
Dena den, gaur egun belarrietan bakarrik ilea uzten diote eta burezurretik trufa delakora arte. Modu honetan bere grazia azpimarratzen da, ziztu bizian korrika egiteko gaitasuna galdu gabe. Bere arrazaren estandarrak, animalia malgu eta gihartsua dela, eta ez dituela ahultasunaren markarik edo zakarkeriarik, esaten du.



Geldialdian dagoenean bere espresioa leun eta atsegina da, baina begiak iristean bere izaera asmatzen da. Bere ezaugarrien artean hauexek daude: bere bularra zakona da, bere lepo luzea progresiboki estutzen doa. Bere burua ile zuri-koloreko gandorraz estalita dago. Barailak luze eta argalak dira. Gorpuzkera gogor hau, hanka muskulatuetan, eta luze samarrak bukatzen da. Bere ilaje dentso eta leunak kizkurtzeko joera du, buruan eta bekokian, batez ere. Bere koloreak urdina, area, edo gibel-kolorea izan daitezke. Pigmentazio iluna ere baloratzen da.



# SETTER INGELESA

Bere ohizkanpoko edertasunagatik eta itxuren dotoretasunagatik, bere izaera lasaiagatik, eta esanekotasun handiagatik, Setter Ingelesa ehizarako txakur oneneta-riko bat, gaur egun konpainia-txakur preziatuenetariko bat da.

# SETTER INGELESA

Adituen ustez arraza hau aitzineko Espainiako Brako txakurrak eta Frantziako Pointerren arteko gurutzatzeetatik etortzen da. Txakur hauek, XVI. mendetik Frantzian eta Ingalaterran eperraren ehizarako aukeraturik izan ziren. Baina Setter Ingelesaren egiazko aita, arrazaren gaur egungo ezaugarrien odolkidean finkatzailea, Sir Edward Lawerack izan zen. Horretarako alerik onenak bildu eta gero eta hautaketaren marra arriskutsu bat jarraituz, Setter mota bat besteak baino politagoa eta adimentsuagoa lortu zuen.

Txakur hau alaia, sentikorra eta aparteko otzana da, pertsona guztiekin maitatzen da, (bere anaia-Setter Irlandarra, ordea, pertsona batzuekin bakarrik maitatzen da).Bere izaera Setter Irlandarrarena baina errazagoa da, maneiatzeko. Emeak arrak baino otzanagoak izan ohi dira.

### Izaera

Heziketa emateko ordua, gauza asko denbora gutxitan ez dizkiogu eskatuko, eta ez diogu zigortuko, izan ere, ez zazkio batere gustatzen errietak eta bere izaeragatik beldurti edo lotsati bihur liteke. Hau dela kausa txakur hauek jabe maitekor bat behar dute, jabe autoritarioaren ordez. Bere izaera leialagatik eta alaiagatik umeekin oso gustora dago. Setter guztiek (Ingelesa, Eskoziarra, Irlandarra) berez, beren jabeekin adoz egon nahi dute eta jabeek nahi dutena egitea nahi dute, laket izateko. Bere heziera ferekan





eta laudorioan datza.

Setter Ingelesa, bizitzaren une lehenengoetan oso delikatua da, arnas-gaixotasunei oso sentikorra da: katarroak, hotzeriak, birus-konplikazioak…Oso garrantzitsua da katarroak saihestea. Horretarako bi eta hiru hilabeteen artean txertoa jarriko diogu –tribalentea (mukieria, hepatitisa eta leptospirosisa) Kume batek begirada bizia, negar-jariorik gabe, du eta bere izaera jostalaria da oso. Berezko nolakotasunak hain nabarmenak dira ezen haiek bakarrik aterako baitira -senak-. Guk geuk bakarrik leunki eta progresiboki bere senak bidera-

# SETTER INGELESA

tuko ditugu. Bere ezaugarrien artean bere ohizkanpoko usainmena dago: ordu batzuk pasa eta gero, txakur hau harrapakinaren agerpena adierazteko gai da. Gainera bere erreflexuak azkarrak dira eta nekaezina da. Baina gehiegizko beroak kalte egiten dio: bere erresistentzia eta ahalbideak gutxitzen dizkio.

Bai basoetan, bai zelai irekietan, bai leku zingiratsuetan, ehizatzeko gai da. Gainera aparteko igerilaria denez harrapakina uretan badago, ziztu bizian harrapatzeko prest dago.



### Elikadura eta ezaugarriak

Sekulako jatuna denez, oso lodia izateko joera du. Eguneroko dieta perfektua hauxe da: 300 gr haragi, 200gr arroza, eta barazki egosi apur bat.

Txakur honi karakterizatzen zaiona, bere mugimenduen eta itxuren dotoretasuna, da. Potentzia handiko txakurra da, baina ez da astuna ezta zakarra ere. Bere burua eta muturra luzeak dira. Begiak ilun eta adierazkorrak, ezpainak handiak eta zintzilikari samarrak dira. Bere begirada noble, bizi eta samurra da batez ere.Bularra zakona da eta buztana, oinaldean zabala da baina pixkanaka-pixkanaka estutzen doa punta estu batean bukatu arte. Bere ilea (5cm-tik 8 cm-ra) leun, zetatsu, eta disdiratsua izan behar da, ez du kizkurrik edo uhindurarik. Hanketan, belarrietan eta buztanaren lihazkietan, sekulako fintasuna du.



Arrak 56 cm-tik 62 cm-ra bitarteko garaiera du eta emeak 53 cm-tik 57-cm-ra. Bere pisua 20-28 kg-ren artean ibiltzen da.

Bere ilearen arabera Setter Ingeles mota batzuk daude, haien artean limoi-punteaketa azpimarratzen da, bere ilajeak arbel urdinxka-kolorea du, orban ilunekin ere eta laranja punteaketa, errefexu gorrixkekin. Halaber, ale zuriak -ia-ia garbiak- aurki daiteke baita zeharo beltzak ere.



# CHIHUAHUA

Chihuahua Amerikako kontinenteko arrazarik zaharrena da. Halaber, Munduko arrazarik txikiena da, izan ere 16 cm-tik 22 cm-ra bitarteko tamaina du eta 900 gr-tik 2´5 kg-ra bitarteko pisua du. Bere tamaina txikiari esker, kostu baxua behar du, mantentzeko zer esanik ez. Bere izaera bizi, maitekor, ausart eta oso adimentsua gaineratu badizkiogu ez da zaila ulertzea zergatik hainbeste arrastaka duen konpainia-txakur bezala. Nahiz eta bere tamaina oso txikia izan, ehiza egiten daki eta bera baino handiagoak diren txakurrengandik babesteko gai da.

Beren itxuragatik oso delikatuak direla ematen du, baina ez da hainbesterako.





# CHIHUAHUA



Egia da udazkenean eta neguan, aterperik daudenean batez ere, edozein estaldura atsegin zaiela, oso hozberak direlako. Iaia ale guztiek hotzikarak pairatzeko joera dute, eta begiratzen dienak pentsa dezake beldurrak airean daudela edo hotzak akabatzen daudela. Halaber zotina edukitzeko joera dute, arazoa konpontzeko goitik behera mugituko ditugu.
Oso garrantzitsua da kontu handia edukitzea buruarekin, kolpe bat ematen badio hil daiteke. Izan ere, bere burezurraren goiko aldean dagoen zirrikitu txikia inoiz ez da izten (aitzitik umeei zirikitu txikia hori izten zaie).
Chihuahuak ez du egin behar ariketa fisiko handia,(arraza aproposa da pertsona zaharrenentzat) baina ez da ona egun osoa apartamentu txikian irten gabe edukitzea, izan ere, zelaian korrika egitea ere behar du. Nahiz eta pertsona askok txakurrari ibiltzea kostatzen zaiola pentsatu, ez da egia :bere jabeak bezain azkar ibil daiteke.
Heldua denean aste batzuk behar ditu bere benetako izaera erakusteko, bere jabe berriari zaintze estu batera menperatzen dio, eta ikaratia dela irudi daiteke, momentu horretan ia nor den etxearen jabea neurtzen dago. Ale batzuk, genio txarrekoak dira eta umeek molestatzen badiote kosk egin diezaieke. Honek esan nahi du ez daukatela pazientziarik umeekin.
Bere zainketari dagokionez esan daiteke, maiz eskuila leun baten bidez bere ilajea eskuilatu behar dugula, eta azkazakak moztu behar da.Garrantzitsua da ere, bere belarriak garbiak mantentzea. Bere ilajea disdiratsua egoteko beluzko eskularru baten bidez igurtzi behar dugu.
Bere elikadurari dagokionez esan dezakegu, alerik txikienak (kilo bateko pisua) 90 gr idiki birruinduta eta egosita, eskukada bat arrozarekin eta Yorkeko urdaiazpiko apur bat (asko gustatzen zaiela) jan behar dituztela, edo bestela txakur-jakiaren kantitate berbera.Haientzat onena da, egunero bi edo hiru bazkari egitea, bat frankoa egitea baino. Ale helduek erdi pote txakur-jaki behar dute edo bere baliokidea eta eskukada bat arroza egosia.

### Historia apur bat

Chihuahuako Mexikoko Estatukoa da. Pentsatzen da Maiek animalia sakratu bezala hartu izan zutela, baina dirudienez historialariek kroniketan esaten zuten Amerikako indioek beren lapikoetan txakur hauek sartu zituztela jateko. Badago beste teoria bat: aspaldikoan chihuahuak, lurreko zuloetan eta arroken artean bizi ziren txakur basatiak, ziren. Edozein bazterretan edo arrailduratan elkarrekin egoteko joera, agian, handik etortzen da.
Pasa zen mendearen amaierara arte Europara ez zen ailegatu. Baina kontinente honetan, bere ospea konpainia animalia bezala, agudo hedatu egin zen.
Nahiz eta arraza honen estandarran altura erabakirik ez egon, alerik txikienak preziatuenak dira. Bere burua biribila da, sagarraren itxura du, mutur labur eta zorrotzarekin. Begiak biribil eta oso beltzak dira. Belarri handiak, beti erne daude. Bere gorputza trinkoa da luzeagoa altua baino eta buztana bizkarraren gainean edo albo batean makurturik dago.
Bi mota daude: Ile motza duena eta ile luze duena, batzuetan kizkurtua. Bere ilajearen kolorerik arruntenak marroia, udinaltzairu kolorea, harea-kolorekoa, eta zilar-kolorea dira. Bere mantua koloreba-karra edo koloreanitza izan daiteke.

# AURKIBIDEA

**TXAKURREN ARRAZA GUZTIAK** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 1

**CANICHEA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **2-7**
Arrazaren motak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 2
Bainua eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 4
Luxozko ikurra . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 5

**SETTER IRLANDARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **8-13**
Maitasunezkoa bere moduan . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 8
Txakurkume aukeratzeko ordua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 10
Ehiztariaren sena . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 12

**COCKERRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **15-18**
Heziketa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
Garbitasuna eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 16
Aparteko ehiztaria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 18
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 18

**ALEMANIAKO ARTZAIN-TXAKURRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **19-22**
Arrazaren txakur baten nortasuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 20
Elikadura eta zainketak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 21
Heroien arraza . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 22

**DALMAZIARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **24-27**
Hautaketa . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 24
Zainketak eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 26
Sabelaldia eta erditzea . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 27

**YORKSHIREA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **29-33**
Zainketak eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 30
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 33

**COLLIE-A** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . **36-41**
Txakur-kume aukeratzeko ordua . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 38
Ostatua eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 40
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . 41





KATUEN ARRAZA GUZTIAK


**AFGANIARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**43-46**
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .44
Iraunkorra eta menperaezina . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .46

**PEKINDARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**47-51**
Ezaugarriak eta Elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .48
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .50

**IHASA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**52-53**

**DOBERMANA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**54-56**
Izaera eta nortasuna . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .54
Jatorria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .56

**MALAMUTEA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**58-61**
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .58
Elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .60
Bere jatorriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .61

**BRIE-A** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**62-64**
Izaerak eta zainketak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .62
Jatorriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .64

**BASSET-HOUNDA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**66-68**
Izugarrizko ehiztaria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .66
Ezaugarriak eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .67
Jatorriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .68

**SAMOYEDO** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**70-73**
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .70
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .72

**TECKEL-A** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**74-77**
Oinorde-gaixotasunak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .74

**DOBATXAKURRA EDO DANIAR HANDIA** . . . . . . . . . . . . . . . . .**78-82**
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .80
Jatorria . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .82

**PINSCHERRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**83-85**

**ARTZAIN -TXAKUR KATALANA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**86-87**
Motak eta izaera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .86

**ARTZAIN -TXAKUR KATALANA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**88-89**

**BOXERRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**90-95**
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .91
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .94

**CHOW-CHOWA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**96-98**
Izaera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .97
Ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .98

**TERRIER ESKOZIARRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**99-102**
Izaera eta elikadura . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .100

**FOX-TERRIERRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**103-108**
Izaera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .104
Zainketak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .106
Fox-terrierraren hazkuntza . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .107

**DANDIE DINMONT-A** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**109-110**
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .110

**BORDERRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**111-112**

**SMOTH COLLIE-A** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**113-116**
Izaera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .114
Ezaugarriak eta zainketak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .116

**BEDLINGTON TERRIERRA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**117-120**
Zainketak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .118
Historia apur bat eta ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .118

**SETTER INGELESA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**121-82**
Izaera . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .122
Elikadura eta ezaugarriak . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .124

**CHIHUAHUA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**125-129**
Historia apur bat . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .129

**BIBLIOGRAFIA** . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .**134**







Fernando Pedro Pérez, 60ko hamarkadaren hasieran Bilboko auzo batean jaioa -Zorrotzan-, txikitatik naturaren deiadarra sentitzen hasi zen.

Oso goiz bere zaletasun, grina bihurtuta, eta gero, bere bizitza ulertzeko modu bakarra, Zierbenako portu txikian hasi zen -Bilboko Abran-. Orduko Zorrotzako apaiza urpekari aurrendari gasteiztarraren eskutik -Fidel Korta- egin zuen, Fernandok.

Goizeko bederatzietan lehenengo meza ospatu ondoren, udako egun guztiak, eguzkiak bere izpiak ikusten uzten zituenean, Fidelek bere ardurapekoarekin-Fernando-, eta bere Seat 600 hartuz, itsasorantz abiatzen zen. Hantxe, Fernandok itsasoaren sekretuak aurkitzeari ekin zion: baxurako arrantzaleek zekartzaten arrainak ezagutuz eta portuko aldapa berberetan saretik arrainak nola kentzen zituzten ikusiz, krabarrokaren arantzen arriskuak jakiteari hasi zion, arraien mimetismoa, arrain launak, labridoen kolore ederrak, esaterako, dontzeila eta karraspio atlantikoa, itsas aingiraren jatuntasuna…

Geroago, urpean igeri egiten zuen -birikaz-, urpeko mundu liluragarria ezagutuz.

Hazten zen neurrian, itsasoaren grina gehitu zen, eta berarentzat, itsasoari eta munduko animaliei buruzko argitalpen guztiak oparirik onenak ziren.

Goiz, Fernando eta bere lagunak alde hezeetako igelak eta tritonak begiratzera zihoazen baita sugandilak eta muskerrak harrapatzera ere. Bestetik, Kadagua ibaiak egiten zuen urmael batean - Zorrotzako bokaletik gertu- arranoei begiratzen zieten.

Pixkanaka-pixkanaka, izaki bizidunak gero eta interesgarriagoak iruditzen zitzaizkion

EHUren Informazio-Zientziaren ikasketak bukatu ondoren ,Kasetaritzaren bi adarretan eta Publizitatean litzentziatu zen, -baita Zuzenbide-ikasketan ere -UNEDen bidez-

1.990. urtean, Fernandok, biologo-talde batekin, -Galtzorian dauden Espezieen Defentsarako Elkartea-, sortu zuen -ADEVE-.

Elkarte honen bidez, Fauna eta Flora-ikasketa asko egin ditu, gainera Zoologia eta Naturaren buruzko ehun liburu argitaratu ditu. Duela gutxi, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmen sinatu zuen eta Fernandok,argitalpen guztiak Internet-etik hedatzea ez ezik, naturaren kultura ezagutaraztea ere du helburua. Izan ere, Fernandok bizitza osoa natura-ikasteari ekin dio buru-belarri.






*Liburu honetan bere generotik lehenengoa, izan ere euskeraz eginda dago-, aditzera emango ditugu betiko konpainia-txakurren arrazak, baita beren*

A.D.E.V.E.